

## **Convención internacional sobre la protección de los derechos de todos los trabajadores migratorios y de sus familiares**

Adoptada por la Asamblea General en su resolución 45/158, de 18 de diciembre de 1990

### **Preámbulo**

Los Estados Partes en la presente Convención,

Teniendo en cuenta los principios consagrados en los instrumentos fundamentales de las Naciones Unidas en materia de derechos humanos, en particular la Declaración Universal de Derechos Humanos, el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, la Convención Internacional sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación Racial, la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer y la Convención sobre los Derechos del Niño,

Teniendo en cuenta también los principios y normas establecidos en los instrumentos pertinentes elaborados en el marco de la Organización Internacional del Trabajo, en especial el Convenio relativo a los trabajadores migrantes (No. 97), el Convenio sobre las migraciones en condiciones abusivas y la promoción de la igualdad de oportunidades y de trato de los trabajadores migrantes (No. 143), la Recomendación sobre los trabajadores migrantes (No. 86), la Recomendación sobre los trabajadores migrantes (No.151), el Convenio relativo al trabajo forzoso u obligatorio (No. 29) y el Convenio relativo a la abolición del trabajo forzoso (No. 105),

Reafirmando la importancia de los principios consagrados en la Convención relativa a la lucha contra las discriminaciones en la esfera de la enseñanza, de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura,

## **Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa**

Biltzar Orokorrak onartua, 1990eko abenduaren 18ko 45/158 ebazpenean

### **Atarikoak**

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

Kontuan hartuz, giza eskubideen esparruan Nazio Batuetako oinarrizko tresnek ezarritako printzipioak, bereziki, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Itunean, Eskubide Zibil eta Politikoen Itunean, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioan, emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioan eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioan,

Kontuan hartuz, halaber, Lanaren Nazioarteko Erakundearen esparruan egindako kasuan kasuko tresnen printzipioak eta arauak, bereziki, langile migratzaileei buruzko Hitzarmenean (97. zk.), abusuzko baldintzetan egindako migrazioei eta langile migratzaileen aukera-eta tratu-berdintasuna sustatzeari buruzko Hitzarmenean (143. zk.), langile migratzaileei buruzko Gomendioan (86. zk.), langile migratzaileei buruzko Gomendioan (151. zk.), derrigorreko edo nahitaezko lanari buruzko Hitzarmenean (29. zk.) eta derrigorreko lana abolitzeari buruzko Hitzarmenean (105. zk.),

Berretsiz, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen irakaskuntza-esparruko bereizkerien aurka borrokatzeari buruzko Konbentzioko printzipioen garrantzia,

Recordando la Convención contra la Tortura y Otros Tratos o Penas Crueles, Inhumanos o Degradantes, la Declaración del Cuarto Congreso de las Naciones Unidas sobre Prevención del Delito y Tratamiento del Delincuente, el Código de conducta para funcionarios encargados de hacer cumplir la ley y las Convenciones sobre la esclavitud,

Recordando que uno de los objetivos de la Organización internacional del Trabajo, como se establece en su Constitución, es la protección de los intereses de los trabajadores empleados en países distintos del propio, y teniendo en cuenta los conocimientos y experiencia de dicha organización en las cuestiones relacionadas con los trabajadores migratorios y sus familiares,

Reconociendo la importancia del trabajo realizado en relación con los trabajadores migratorios y sus familiares en distintos órganos de las Naciones Unidas, particularmente en la Comisión de Derechos Humanos y la Comisión de Desarrollo Social, así como en la Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación, la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura y la Organización Mundial de la Salud y en otras organizaciones internacionales,

Reconociendo también los progresos realizados por algunos Estados mediante acuerdos regionales o bilaterales para la protección de los derechos de los trabajadores migratorios y de sus familiares, así como la importancia y la utilidad de los acuerdos bilaterales y multilaterales en esta esfera,

Comprendiendo la importancia y la magnitud del fenómeno de las migraciones, que abarca a millones de personas y afecta a un gran número de Estados de la comunidad internacional,

Conscientes de la repercusión que las corrientes de trabajadores migratorios tienen sobre los Estados y los pueblos interesados, y deseosos de establecer normas que puedan contribuir a armonizar las actitudes de los Estados mediante la

Gogoraturik, torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa, Nazio Batuen laugarren biltzarreko Adierazpena, delitua prebenitzeari eta delitugilea tratatzeari buruzkoa, legea betearazteko ardura duten funtzionarioentzako jokabide-kodea eta esklabotzari buruzko Konbentzioak,

Gogoraturik, Lanaren Nazioarteko Erakundearen helburuetako bat, bere Konstituzioan ezarritakoaren ildotik, langileen interesak defendatzea dela, langile horiek euren herrialdeetatik kanpo enplegatuta daudenean, eta kontuan hartuz erakunde horren jakitateak eta eskarmentua, langile migratzaileekin eta horien familiakoekin zerikusia duten gaietan,

Aitortuz, Nazio Batuen organo desberdinetan, bereziki Giza Eskubideen Batzordean eta Gizarte Garapeneko Batzordean, bai eta Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakunde, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakunde eta Osasunaren Mundu Erakunde eta nazioarteko beste erakunde batzuetan langile migratzaileen eta horien familiakoen inguruan egindako lanaren garrantzia,

Aitortuz, halaber, estatu batzuek emandako aurrerapausoak, erregio-mailako edo bitariko akordioen bidez, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak babesteko, bai eta esparru horretan bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioen garrantzia eta erabilgarritasuna ere,

Ulerturik, migrazio-fenomenoaren garrantzia eta norainokoa, bere baitara milioika pertsona biltzeaz gain, eragin handia baitu nazioarte-mailako estatu askotan,

Jakitun izanik, langile migratzaileen fluxuek duten ondorioa estatuetan eta herrialde interesdunetan, eta gogoia izanik, estatuen jarrerak bateratzen lagun dezaketen arauak ezartzeko, horien bidez onar daitezten oinarrizko printzipioak, langile

aceptación de los principios fundamentales relativos al tratamiento de los trabajadores migratorios y de sus familiares,

Considerando la situación de vulnerabilidad en que con frecuencia se encuentran los trabajadores migratorios y sus familiares debido, entre otras cosas, a su ausencia del Estado de origen y a las dificultades con las que tropiezan en razón de su presencia en el Estado de empleo,

Convencidos de que los derechos de los trabajadores migratorios y de sus familiares no han sido debidamente reconocidos en todas partes y, por tanto, requieren una protección internacional apropiada,

Teniendo en cuenta el hecho de que a menudo la migración es causa de graves problemas para los familiares de los trabajadores migratorios, así como para los propios trabajadores, particularmente debido a la dispersión de la familia,

Teniendo presente que los problemas humanos que plantea la migración son aún más graves en el caso de la migración irregular, y convencidos por tanto de que se debe alentar la adopción de medidas adecuadas a fin de evitar y eliminar los movimientos y el tránsito clandestinos de los trabajadores migratorios, asegurándoles a la vez la protección de sus derechos humanos fundamentales,

Considerando que los trabajadores no documentados o que se hallan en situación irregular son empleados frecuentemente en condiciones de trabajo menos favorables que las de otros trabajadores y que para determinadas empresas ello constituye un aliciente para buscar ese tipo de mano de obra con el objeto de obtener los beneficios de una competencia desleal,

Considerando también que la práctica de emplear a trabajadores migratorios que se hallen en situación irregular será desalentada si se reconocen más ampliamente los derechos humanos fundamentales de todos los trabajadores migratorios y, además, que la concesión de determinados derechos adicionales a los trabajadores migratorios y a sus familiares que se hallen en situación regular alentará a todos los trabajadores migratorios a

migratzaileen eta horien familiakoen tratamenduari dagokionez,

Kontuan harturik, langile migratzaileek eta horien familiakoek sarritan duten ahulezia-egoera, besteak beste, jatorrizko estatutik kanpo daudelako eta enplegurako estatuan egoteagatik arazoak izan ohi dituztelako,

Jakinik, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak toki guztietan ez direla behar bezala aitortu, eta, ondorenez, nazioarte-mailako babes egokia behar dutela,

Aintzat harturik, migrazioak sarritan arazo larriak sortzen dituela langile migratzaileen familiakoentzat, bai eta langileentzat eurentzat ere, batik bat, familia-dispersioa dela eta,

Aintzat harturik, migrazioak sortzen dituen giza arazoak harik eta larriagoak direla migrazio irregularraren kasuan, eta, ondorenez, jakinik neurri egokiak hartzea bultzatu behar dela, langile migratzaileen mugimendu eta iraganbide klandestinoak saihestu eta ezabatzeko, aldi berean ziurtatuz langile horien oinarrizko giza eskubideak babesten direla,

Kontuan harturik, atzerritar agirigabeak edo egoera irregularrean daudenak sarritan enplegatzen direla beste langile batzuk baino lan-baldintza kaltegarriagoetan, eta zenbait enpresentzat hori interesgarria dela, halako lan-eskua bila dezaten, lehia desleialaren bidez onurak lortzeko,

Kontuan harturik, halaber, egoera irregularrean dauden langile migratzaileak enplegatzeko joera murriztuko dela, baldin eta langile migratzaile guztien oinarrizko giza eskubideak modu zabalagoan aitortzen badira, eta, orobat, egoera erregularrean dauden langile migratzaileei eta horien familiakoei zenbait eskubide gehigarri aitortzen bazaie, horrek langile migratzaile guztiak bultzatuko dituela estatu interesdunetako lege eta prozedurak

respetar y cumplir las leyes y procedimientos establecidos por los Estados interesados,

Convencidos, por ello, de la necesidad de lograr la protección internacional de los derechos de todos los trabajadores migratorios y de sus familiares, reafirmando y estableciendo normas fundamentales en una convención amplia que tenga aplicación universal,

Han convenido en lo siguiente:

## **PARTE I. Alcance y definiciones**

### **Artículo 1**

La presente Convención será aplicable, salvo cuando en ella se disponga otra cosa, a todos los trabajadores migratorios y a sus familiares sin distinción alguna por motivos de sexo, raza, color, idioma, religión o convicción, opinión política o de otra índole, origen nacional, étnico o social, nacionalidad, edad, situación económica, patrimonio, estado civil, nacimiento o cualquier otra condición.

La presente Convención será aplicable durante todo el proceso de migración de los trabajadores migratorios y sus familiares, que comprende la preparación para la migración, la partida, el tránsito y todo el período de estancia y de ejercicio de una actividad remunerada en el Estado de empleo, así como el regreso al Estado de origen o al Estado de residencia habitual.

### **Artículo 2**

A los efectos de la presente Convención:

Se entenderá por «trabajador migratorio» toda persona que vaya a realizar, realice o haya realizado una actividad remunerada en un Estado del que no sea nacional.

- a) Se entenderá por «trabajador fronterizo» todo trabajador migratorio que conserve su residencia habitual en un Estado vecino, al que normalmente regrese cada día o al menos una vez por semana;
- b) Se entenderá por «trabajador de temporada» todo trabajador migratorio cuyo trabajo, por su propia naturaleza, dependa de condiciones estacionales y sólo se

errespetatzera,

Jakinik, horren guztiorren ondorioz, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak nazioarte-mailan babestea lortu behar dela, oinarrizko arauak berretsiz eta ezarriz, aplikazio unibertsala izango duen konbentzio zabal batean,

Hurrengo hitzartu dute:

## **I. ZATIA. Norainokoa eta definizioak**

### **1. artikulua**

Konbentzio hau aplikatuko zaie, bertan aurkakoa ezartzen denean izan ezik, langile migratzaile guztiei eta horien familiakoei, inolako bereizketarik gabe, sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa edo pentsaera, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, naziotasuna, adina, ekonomia-egoera, ondarea, egoera zibila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide.

Konbentzio hau aplikatuko da langile migratzaileen eta horien familiakoen migrazio-prozesu osoak iraun bitartean, horrek bere baitara biltzen duela migrazioarako prestatzea, migrazioa hastea, iraganbidea eta enplegurako estatuan izandako egonaldi guztia eta ordaindutako jarduerarako aldi guztia, bai eta jatorrizko estatura edo ohiko bizilekua zein estatutan izan eta estatu horretara itzultzea ere.

### **2. artikulua**

Konbentzio honen ondoretarako:

«Langile migratzaile» dira estatu batean ordaindutako jarduera egingo duten, egiten ari diren edo egin duten pertsona guztiak, estatu horretako nazionalak ez badira.

- a) «Mugaz gaindiko langile» dira langile migratzaile guztiak, horiek ohiko bizilekuari eusten diotenean alboko estatu batean, normalean horretara itzultzen direla egunero edo astean behin gutxienez;
- b) «Sasoiko langile» dira langile migratzaile guztiak, lanaren izaerarengatik, horien lana denboraldi-baldintzen mende dagoenean, eta urteko sasoi batean bakarrik egiten

realice durante parte del año;

c) Se entenderá por «marino», término que incluye a los pescadores, todo trabajador migratorio empleado a bordo de una embarcación registrada en un Estado del que no sea nacional;

d) Se entenderá por «trabajador en una estructura marina» todo trabajador migratorio empleado en una estructura marina que se encuentre bajo la jurisdicción de un Estado del que no sea nacional;

e) Se entenderá por «trabajador itinerante» todo trabajador migratorio que, aun teniendo su residencia habitual en un Estado, tenga que viajar a otro Estado u otros Estados por períodos breves, debido a su ocupación;

f) Se entenderá por «trabajador vinculado a un proyecto» todo trabajador migratorio admitido a un Estado de empleo por un plazo definido para trabajar solamente en un proyecto concreto que realice en ese Estado su empleador;

g) Se entenderá por «trabajador con empleo concreto» todo trabajador migratorio:

i) Que haya sido enviado por su empleador por un plazo limitado y definido a un Estado de empleo para realizar una tarea o función concreta;

ii) Que realice, por un plazo limitado y definido, un trabajo que requiera conocimientos profesionales, comerciales, técnicos o altamente especializados de otra índole; o

iii) Que, a solicitud de su empleador en el Estado de empleo, realice por un plazo limitado y definido un trabajo de carácter transitorio o breve;

y que deba salir del Estado de empleo al expirar el plazo autorizado de su estancia, o antes, si deja de realizar la tarea o función concreta o el trabajo a que se ha hecho referencia;

h) Se entenderá por «trabajador por cuenta propia» todo trabajador migratorio que realice una actividad remunerada sin tener

denean;

c) «Marinelak» dira, termino horretara arrantzaleak ere biltzen direla, langile migratzaile guztiak, halakoak enplegatuta daudenean estatu batean erregistratutako itsasontzi batean, estatu horretako nazionalak izan gabe;

d) «Itsas egitura bateko langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoak enplegatuta daudenean estatu baten jurisdikzioaren mende dagoen itsas egitura batean, estatu horretako nazionalak izan gabe;

e) «Langile ibiltariak» dira langile migratzaile guztiak, estatu batean ohiko bizilekua izan arren, beste estatu batera edo batzuetara bidaiatu behar dutenean, aldi laburretarako, euren jardunbidea dela eta;

f) «Proiektu bati lotutako langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoak enplegurako estatu batean onartzen direnean, aldi zehaztu baterako, euren enplegatzaileek estatu horretan gauzatzen duten proiektu jakin batean lan egiteko bakarrik;

g) «Enplegu jakin bat duten langile» dira langile migratzaile guztiak, baldin eta:

i) Euren enplegatzaileak epe mugatu eta zehaztu baterako bidali baditu enplegurako estatu batera, zeregin edo eginkizun jakin bat gauzatzeko;

ii) Epe mugatu eta zehaztuan gauzatzen badituzte lanbide-jakitateak, merkataritzako jakitateak, jakitate teknikoak edo beste mota bateko jakitate oso espezializatuak behar dituzten lanak; edo

iii) Enplegurako estatuan euren enplegatzaileak hala eskatuta, aldi mugatu eta zehaztuan gauzatzen badute izaera iragankorreko edo laburreko lana;

eta enplegurako estatutik irten behar badute egonaldiko baimenaren epea agortu ondoren, edo lehenago, baldin eta aipatu zeregin edo eginkizun zehatza edo lana egiteari uzten badiote;

h) «Beregaineko langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoek ordaindutako jarduera bat gauzatzen dutenean, lan-

un contrato de trabajo y obtenga su subsistencia mediante esta actividad, trabajando normalmente solo o junto con sus familiares, así como todo otro trabajador migratorio reconocido como trabajador por cuenta propia por la legislación aplicable del Estado de empleo o por acuerdos bilaterales o multilaterales.

### Artículo 3

La presente Convención no se aplicará a:

- a) Las personas enviadas o empleadas por organizaciones y organismos internacionales y las personas enviadas o empleadas por un Estado fuera de su territorio para desempeñar funciones oficiales, cuya admisión y condición jurídica estén reguladas por el derecho internacional general o por acuerdos o convenios internacionales concretos;
- b) Las personas enviadas o empleadas por un Estado fuera de su territorio, o por un empleador en su nombre, que participen en programas de desarrollo y en otros programas de cooperación, cuya admisión y condición jurídica estén reguladas por un acuerdo con el Estado de empleo y que, de conformidad con este acuerdo, no sean consideradas trabajadores migratorios;
- c) Las personas que se instalen en un país distinto de su Estado de origen en calidad de inversionistas;
- d) Los refugiados y los apátridas, a menos que esté previsto que se aplique a estas personas en la legislación nacional pertinente del Estado Parte de que se trate o en instrumentos internacionales en vigor en ese Estado;
- e) Los estudiantes y las personas que reciben capacitación;
- f) Los marinos y los trabajadores en estructuras marinas que no hayan sido autorizados a residir y ejercer una actividad remunerada en el Estado de empleo.

### Artículo 4

A los efectos de la presente Convención, el término «familiares» se refiere a las

kontraturik izan gabe, eta euren bizimodua jarduera horren bidez ateratzen dutenean, normalean eurak bakarrik edo euren familiakoekin lan eginez, bai eta beste edozein langile migratzaile ere, baldin eta enplegurako estatuko legeria aplikagarriak edo bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioek aitortzen badute langile hori beregainekoa dela.

### 3. artikulua

Konbentzio honen aplikazio-esparrutik at daude:

- a) Nazioarteko erakunde eta antolakundeek bidali edo enplegatutako pertsonak eta estatu batek bere lurraldetik kanpora bidali edo enplegatutako pertsonak, eginkizun ofizialak gauzatzeko, baldin eta pertsona horien onarpena eta egoera juridikoa nazioarteko zuzenbide orokorrak edo nazioarteko akordio nahiz hitzarmen zehatzek arautu badituzte;
- b) Estatu batek, edo horren izenean, bere lurraldetik kanpora bidali edo enplegatutako pertsonak, halakoek garapen-programetan eta lankidetzako beste programa batzuetan parte hartzen dutenean, baldin eta pertsona horien onarpena eta egoera juridikoa enplegurako estatuarekin egindako akordio batek arautu baditu, eta, akordio horrekin bat etorritik, pertsona horiek langile migratzailetzat jotzen ez badira;
- c) Herrialde batean instalatzen diren pertsonak, euren jatorrizko estatutik kanpo, inbertitzaile gisa;
- d) Errefuxiatuak eta apatridak, salbu eta kasuan kasuko estatu alderdiaren legeria nazionalan edo estatu horretan indarrean dauden nazioarteko tresnetan ezarri denean pertsona horiei ere konbentzio hau aplikatu behar zaiela;
- e) Ikasleak eta doitasuna jasotzen duten pertsonak;
- f) Marinelak eta itsas egituretako langileak, halakoek ez dutenean baimenik lortu, enplegurako estatuan bizitzeko eta ordaindutako jarduera bat gauzatzeko.

### 4. artikulua

Konbentzio honen ondoretarako, «famiakoak» terminoak bere baitara

personas casadas con trabajadores migratorios o que mantengan con ellos una relación que, de conformidad con el derecho aplicable, produzca efectos equivalentes al matrimonio, así como a los hijos a su cargo y a otras personas a su cargo reconocidas como familiares por la legislación aplicable o por acuerdos bilaterales o multilaterales aplicables entre los Estados de que se trate.

### **Artículo 5**

A los efectos de la presente Convención, los trabajadores migratorios y sus familiares:

a) Serán considerados documentados o en situación regular si han sido autorizados a ingresar, a permanecer y a ejercer una actividad remunerada en el Estado de empleo de conformidad con las leyes de ese Estado y los acuerdos internacionales en que ese Estado sea parte;

b) Serán considerados no documentados o en situación irregular si no cumplen las condiciones establecidas en el inciso a) de este artículo.

### **Artículo 6**

A los efectos de la presente Convención:

a) Por «Estado de origen» se entenderá el Estado del que sea nacional la persona de que se trate;

b) Por «Estado de empleo» se entenderá el Estado donde el trabajador migratorio vaya a realizar, realice o haya realizado una actividad remunerada, según el caso;

c) Por «Estado de tránsito» se entenderá cualquier Estado por el que pase el interesado en un viaje al Estado de empleo o del Estado de empleo al Estado de origen o al Estado de residencia habitual.

## **PARTE II. No discriminación de derechos**

### **Artículo 7**

Los Estados Partes se comprometerán, de conformidad con los instrumentos

biltzen ditu langile migratzaileekin ezkonduko pertsonak edo langile horiekin harremanak dituzten pertsonak, aplikatu beharreko zuzenbidearekin bat etorritz, harreman horiek ezkontzaren antzeko ondoreak sortzen dituztenean, bai eta langile horien ardurapean dauden seme-alabak eta beste pertsona batzuk ere, azken horiek familiako modukotzat aitortu dituztenean legeria aplikagarriak edo kasuan kasuko estatuen artean aplikatu beharreko bitariko edo alderdi antzeko akordioek.

### **5. artikulua**

Konbentzio honen ondoretarako, langile migratzaileak eta horien familiakoak:

a) Agiridunak direla edo egoera erregularrean daudela ulertuko da, baldin eta enplegurako estatuan sartzeko, egoteko eta ordaindutako jarduera bat gauzatzeko baimena lortu badute, estatu horretako legeekin eta estatu hori nazioarteko zein akordioetako alderdi izan eta akordio horiekin bat etorritz;

b) Agirigabeak direla edo egoera irregularrean daudela ulertuko da, baldin eta artikulua honetako a) idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

### **6. artikulua**

Konbentzio honen ondoretarako:

a) «Jatorrizko estatua» da kasuan kasuko pertsona zein estatuko nazionala izan eta estatu hori;

b) «Enplegurako estatua» da langile migratzaileak ordaindutako jarduera gauzatu duen, gauzatzen ari den edo gauzatu duen estatua, kasuaren arabera;

c) «Iraganbideko estatua» da interesdunak bidaiatuz igarotzen duen edozein estatu, enplegurako estatura joateko edo enplegurako estatutik jatorrizko estatura edo bere ohiko bizilekua dagoen estatura joateko.

## **II. ZATIA. Eskubide-bereizkeriarik eza**

### **7. artikulua**

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, giza eskubideei buruz nazioartean dauden

internacionales sobre derechos humanos, a respetar y asegurar a todos los trabajadores migratorios y sus familiares que se hallen dentro de su territorio o sometidos a su jurisdicción los derechos previstos en la presente Convención, sin distinción alguna por motivos de sexo, raza, color, idioma, religión o convicción, opinión política o de otra índole, origen nacional, étnico o social, nacionalidad, edad, situación económica, patrimonio, estado civil, nacimiento o cualquier otra condición.

### **PARTE III. Derechos humanos de todos los trabajadores migratorios y de sus familiares**

#### **Artículo 8**

Los trabajadores migratorios y sus familiares podrán salir libremente de cualquier Estado, incluido su Estado de origen.

Ese derecho no estará sometido a restricción alguna, salvo las que sean establecidas por ley, sean necesarias para proteger la seguridad nacional, el orden público, la salud o la moral públicas o los derechos y libertades ajenos y sean compatibles con otros derechos reconocidos en la presente parte de la Convención.

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a regresar en cualquier momento a su Estado de origen y permanecer en él.

#### **Artículo 9**

El derecho a la vida de los trabajadores migratorios y sus familiares estará protegido por ley.

#### **Artículo 10**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será sometido a torturas ni a tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes.

#### **Artículo 11**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será sometido a esclavitud ni servidumbre.

No se exigirá a los trabajadores migratorios ni a sus familiares que realicen trabajos forzosos u obligatorios.

tresnekin bat etorri, euren lurraldeetan edo euren jurisdikzioaren mende dauden langile migratzaile guztiei eta horien familiakoei errespetatzeko eta ziurtatzeko konbentzio honetako eskubideak, inolako bereizketarik gabe, sexua, arraza, larrukolorea, hizkuntza, erlijioa edo pentsaera, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, naziotasuna, adina, ekonomia-egoera, ondarea, egoera zibila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide.

### **III. ZATIA. Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen giza eskubideak**

#### **8. artikulua**

Langile migratzaileak eta horien familiakoak askatasunez irten ahal izango dute edozein estatutik, baita euren jatorrizko estatutik ere.

Eskubide horrek ez du inolako murrizketarik izango, salbu eta murrizketa horiek legeak ezartzen dituenean, beharrezkoak direnean segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun eta moral publikoa edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko, eta konbentzio honetan aitortutako beste eskubide batzuekin bateragarriak direnean.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, edozein unetan jatorrizko estatura itzuli eta bertan egoteko.

#### **9. artikulua**

Legeak babestuko du langile migratzaileen eta horien familiakoen bizitza-eskubidea.

#### **10. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek ezin izango dute torturarik pairatu, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere.

#### **11. artikulua**

Langile migratzaileek edo horien familiakoek ezin izango dute esklabotzarik jasan, ezta morrontzarik ere.

Langile migratzaileei eta horien familiakoei ez zaie galdutuko derrigorreko edo nahitaezko lanik egitea.

El párrafo 2 del presente artículo no obstará para que los Estados cuya legislación admita para ciertos delitos penas de prisión con trabajos forzados puedan imponer éstos en cumplimiento de sentencia dictada por un tribunal competente.

A los efectos de este artículo, la expresión «trabajos forzados u obligatorios» no incluirá:

- a) Ningún trabajo o servicio, no previsto en el párrafo 3 de este artículo, que normalmente deba realizar una persona que, en virtud de una decisión de la justicia ordinaria, se halle detenida o haya sido puesta ulteriormente en situación de libertad condicional;
- b) Ningún servicio exigido en casos de emergencia o de desastre que amenacen la vida o el bienestar de la comunidad;
- c) Ningún trabajo o servicio que forme parte de las obligaciones civiles normales, en la medida en que se imponga también a los ciudadanos del Estado de que se trate.

### **Artículo 12**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a la libertad de pensamiento, de conciencia y de religión.

Ese derecho incluirá la libertad de profesar o de adoptar la religión o creencia de su elección, así como la libertad de manifestar su religión o creencia, individual o colectivamente, tanto en público como en privado, mediante el culto, la celebración de ritos, las prácticas y la enseñanza.

Los trabajadores migratorios y sus familiares no serán sometidos a coacción alguna que limite su libertad de profesar y adoptar una religión o creencia de su elección.

La libertad de expresar la propia religión o creencia sólo podrá quedar sometida a las limitaciones que se establezcan por ley y que sean necesarias para proteger la seguridad, el orden, la salud y la moral públicos o los derechos y las libertades

Artikulu honetako 2. paragrafoa gorabehera, zenbait delituri begira, estatuetao legeriek espetxealdi-zigorarekin batera derrigorreko lanak onartzen dituztenean, estatuiek lan horiek ezarri ahal izango dituzte, auzitegi eskudunak hori berori jasoz eman duen epaia betetzeko.

Artikulu honen ondoretarako, «derrigorreko edo nahitaezko lanak» esamoldera ez dira bilduko:

- a) Artikulu honetako 3. paragrafoan jaso gabeko lan edo zerbitzuetarik edozein, normalean halakoak gauzatu behar dituela justizia arrunteko erabaki baten ondorioz atxilotuta dagoen pertsona batek edo gerogarrenean baldintzapeko askatasun-egoeran utzi den pertsona batek;
- b) Bizitza edo erkidegoaren ongizatea mehatxatzen duen larrialdia edo hondamendia dagoenean zein zerbitzu galdatu eta zerbitzu horietarik edozein;
- c) Betebehar zibilen artean dauden lan edo zerbitzuetarik edozein, halakoak kasuan kasuko estatuko herritarrei ere galdatzen zaizkienean.

### **12. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea izango dute.

Eskubide horrek bere baitara bilduko du euren aukerako erlijioa edo sinesmena izan edo bereganatzea, bai eta euren erlijioa edo sinesmena banaka edo kolektiboan agertzeko askatasuna ere, jendaurrean nahiz modu pribatuan, kultu, erritu-ospakizun, eginera eta irakaskuntzaren bidez.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek ez dute jasango inolako derrigortzerik, euren aukerako erlijioa edo sinesmena izan edo bereganatzeko askatasuna mugatzen duenik.

Norberaren erlijioa edo sinesmenak adierazteko askatasunaren muga bakarrak izango dira legeak ezarritakoak eta beharrezkoak direnak segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerakoen oinarritzko eskubide eta

fundamentales de los demás.

Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen a respetar la libertad de los padres, cuando por lo menos uno de ellos sea trabajador migratorio, y, en su caso, de los tutores legales para hacer que los hijos reciban la educación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.

### **Artículo 13**

El derecho de opinión de los trabajadores migratorios y sus familiares no será objeto de injerencia alguna.

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a la libertad de expresión; este derecho comprende la libertad de recabar, recibir y difundir información e ideas de toda índole, sin limitaciones de fronteras, ya sea oralmente, por escrito o en forma impresa o artística, o por cualquier otro medio de su elección.

El ejercicio del derecho previsto en el párrafo 2 del presente artículo entraña obligaciones y responsabilidades especiales.

Por lo tanto, podrá ser sometido a ciertas restricciones, a condición de que éstas hayan sido establecidas por ley y sean necesarias para:

- a) Respetar los derechos o el buen nombre ajenos;
- b) Proteger la seguridad nacional de los Estados de que se trate, el orden público o la salud o la moral públicas;
- c) Prevenir toda la propaganda en favor de la guerra;
- d) Prevenir toda apología del odio nacional, racial o religioso que constituya incitación a la discriminación, la hostilidad o la violencia.

### **Artículo 14**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será sometido a injerencias arbitrarias o ilegales en su vida privada, familia, hogar, correspondencia u otras comunicaciones ni a ataques ilegales contra su honor y buen nombre.

askatasunak babesteko.

Konbentzio honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, errespetatzeko gurasoen askatasuna, euretako bat, gutxienez, langile migratzailea denean, eta, hala denean, legearen araberrako tutoreen askatasuna, seme-alabei eskain diezaieten euren pentsaerekin bat egiten duen erlijio-eta moral-hezkuntza.

### **13. artikulua**

Langile migratzaileen eta horien familiakoen iritzi-eskubideak ez du izango inolako esku-sartzerik.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek adierazpen-askatasunerako eskubidea izango dute; eskubide horretara biltzen da era guztietako informazioa eta ideiak bildu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo eurek aukeratutako beste edozein bide baliatuta.

Artikulu honetako 2. paragrafoan jasotako eskubide horren egikaritzak betebeharrak eta ardura bereziak eratortzen ditu.

Beraz, eskubide horren egikaritzari zenbait murrizketa egin ahal izango zaizkio, baldin eta halakoak legeaz ezarri eta beharrezkoak badira, hurrengo helburuetarako:

- a) Gainerakoen eskubideak eta izen ona errespetatzea;
- b) Kasuan kasuko estatuen segurtasun nazionala, ordena publikoa edo osasun eta moral publikoak babestea;
- c) Gerraren aldeko propaganda guztia saihestea;
- d) Bereizkeria, borroka edo indarkeria eragiten dituen nazio-, arraza- edo erlijio-gorrotoaren edozein apologia saihestea.

### **14. artikulua**

Langile migratzaileek edo horien familiakoek ez dute jasango nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik bizitza pribatuan, familian, etxebizitzan, korrespondentzian edo beste edozein komunikazio-motatan, ezta legearen aurkako erasorik ere, euren ohorearen edo

Todos los trabajadores migratorios tendrán derecho a la protección de la ley contra tales injerencias o ataques.

#### **Artículo 15**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será privado arbitrariamente de sus bienes, ya sean de propiedad personal exclusiva o en asociación con otras personas.

Cuando, en virtud de la legislación vigente en el Estado de empleo, los bienes de un trabajador migratorio o de un familiar suyo sean expropiados total o parcialmente, la persona interesada tendrá derecho a una indemnización justa y apropiada.

#### **Artículo 16**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a la libertad y la seguridad personales.

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a la protección efectiva del Estado contra toda violencia, daño corporal, amenaza o intimidación por parte de funcionarios públicos o de particulares, grupos o instituciones.

La verificación por los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley de la identidad de los trabajadores migratorios o de sus familiares se realizará con arreglo a los procedimientos establecidos por ley.

Los trabajadores migratorios y sus familiares no serán sometidos, individual ni colectivamente, a detención o prisión arbitrarias; no serán privados de su libertad, salvo por los motivos y de conformidad con los procedimientos que la ley establezca.

Los trabajadores migratorios y sus familiares que sean detenidos serán informados en el momento de la detención, de ser posible en un idioma que comprendan, de los motivos de esta detención, y se les notificarán prontamente, en un idioma que comprendan, las acusaciones que se les haya formulado.

izen onaren kontra.

Langile migratzaile guztiek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, legearen babesa izateko halako esku-sartze edo erasoen aurka.

#### **15. artikulua**

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira nahierara gabetuko euren ondasunez, halakoak euren jabetza pertsonalekoak bakarrik izan nahiz beste pertsona batzuekin elkartuta izan.

Enplegurako estatuan indarrean dagoen legeriaren ondorioz, langile migratzaile bati edo horren familiako bati ondasunak kentzen zaizkionean, oso-osoan edo zati batean, pertsona interesdunak eskubidea izango du kalte-ordain bidezko eta egokia jasotzeko.

#### **16. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek askatasunerako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea izango dute.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek estatuaren babes eragingarria jasotzeko eskubidea izango dute, funtzionario publikoek edo pertsona pribatuek, taldeek edo erakundeek eragindako indarkeria, gorputzeko kalte, mehatxu edo larderiaren aurka.

Legea betearazteko ardura duten funtzionarioek langile migratzaileen edo horien familiakoen nortasuna egiaztatuko dute legeak ezarritako prozedurekin bat etorritik.

Langile migratzaileak eta horien familiakoek ez dute jasango, banaka edo modu kolektiboan, nahierarako atxiloketa edo espetxealdirik; ez dira askatasunaz gabetuko, salbu eta legeak ezarritako arrazoiak daudenean eta legeak ezarritako prozedurekin bat etorritik jarduten denean.

Atxilotutako langile migratzaileek eta horien familiakoek atxiloketa-unean informazioa jasoko dute, ahal dela eurek ulertzen duten hizkuntza batean, atxiloketa-arrazoiengatik, eta lehenbailehen jakinaraziko zaizkie, ulertzen duten hizkuntza batean, egotzi zaizkien akusazioak.

Los trabajadores migratorios y sus familiares detenidos o presos a causa de una infracción penal serán llevados sin demora ante un juez u otro funcionario autorizado por la ley para ejercer funciones judiciales y tendrán derecho a ser juzgados en un plazo razonable o a ser puestos en libertad.

La prisión preventiva de las personas que hayan de ser juzgadas no debe ser la regla general, pero su libertad podrá estar subordinada a garantías que aseguren la comparecencia del acusado en el acto del juicio o en cualquier otro momento de las diligencias procesales y, en su caso, para la ejecución del fallo.

Cuando un trabajador migratorio o un familiar suyo sea arrestado, recluso en prisión o detenido en espera de juicio o sometido a cualquier otra forma de detención:

a) Las autoridades consulares o diplomáticas de su Estado de origen, o de un Estado que represente los intereses del Estado de origen, serán informadas sin demora, si lo solicita el detenido, de la detención o prisión y de los motivos de esa medida;

b) La persona interesada tendrá derecho a comunicarse con esas autoridades.

Toda comunicación dirigida por el interesado a esas autoridades será remitida sin demora, y el interesado tendrá también derecho a recibir sin demora las comunicaciones de dichas autoridades;

c) Se informará sin demora al interesado de este derecho y de los derechos derivados de los tratados pertinentes, si son aplicables entre los Estados de que se trate, a intercambiar correspondencia y reunirse con representantes de esas autoridades y a hacer gestiones con ellos para su representación legal.

Los trabajadores migratorios y sus familiares que sean privados de su libertad por detención o prisión tendrán derecho a incoar procedimientos ante un tribunal, a fin

Arau-hauste penal baten ondorioz atxilotuta edo preso dauden langile migratzaileak eta horien familiakoak atzerapenik gabe jarriko dira epailearen edo eginkizun judizialak gauzatzeko legeak baimendutako beste funtzionario baten esku, eta atxilotu edo preso horiek eskubidea izango dute zentzuzko epean epaiketa izateko edo aske gelditzeko.

Epaiketa izan behar duten pertsonen aurreneurritzko espetxealdia ez da izan behar erregela nagusia, baina pertsona horien askatasuna berme batzuen mende izan daiteke, berme horien helburua bada akusatua epaiketa-ekitaldian edo eginbide prozesalen beste edozein unetan ager dadila ziurtatzea eta, hala denean, epaitza betearaztea.

Langile migratzaile bat edo horren familiako bat atxilotu, espetxean giltzapetu edo atzitzen denean, epaiketa izan arte, edo beste edozein modutara atxilotzen bada:

a) Atxilotuak hala eskatzen badu, atzerapenik gabe informatuko zaizkie horien jatorrizko estatuetako kontsuletxeetako edo diplomaziako agintariei atxiloteta edo espetxealdia eta neurri hori hartzeko arrazoiak;

b) Pertsona interesdunak eskubidea izango du agintari horiekin komunikatzeko.

Interesdunak agintari horiei zuzendutako komunikazio oro atzerapenik gabe bidaliko da, eta interesdunak eskubidea izango du, halaber, atzerapenik gabe jasotzeko agintari horien komunikazioak;

c) Interesdunari atzerapenik gabe informatuko zaizkio eskubide hori, eta kasuan kasuko tratatuek eratorritako eskubideak, baldin eta halakoak aplikagarri badira kasuan kasuko estatuen artean, korrespondentzia trukatu eta agintari horien ordezkariekin biltzeko eta ordezkari horiekin kudeaketak egiteko euren lege-ordezkaritzari dagokionez.

Atxilotetarengatik edo espetxealdiarengatik askatasunaz gabetzen diren langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute auzitegian

de que éste pueda decidir sin demora acerca de la legalidad de su detención y ordenar su libertad si la detención no fuere legal.

En el ejercicio de este recurso, recibirán la asistencia, gratuita si fuese necesario, de un intérprete cuando no pudieren entender o hablar el idioma utilizado.

Los trabajadores migratorios y sus familiares que hayan sido víctimas de detención o prisión ilegal tendrán derecho a exigir una indemnización.

#### **Artículo 17**

Todo trabajador migratorio o familiar cuyo privado de libertad será tratado humanamente y con el respeto debido a la dignidad inherente al ser humano y a su identidad cultural.

Los trabajadores migratorios y sus familiares acusados estarán separados de los condenados, salvo en circunstancias excepcionales, y sometidos a un régimen distinto, adecuado a su condición de personas no condenadas.

Si fueren menores de edad, estarán separados de los adultos y la vista de su causa tendrá lugar con la mayor celeridad.

Todo trabajador migratorio o familiar cuyo que se encuentre detenido en un Estado de tránsito o en el Estado de empleo por violación de las disposiciones sobre migración será alojado, en la medida de lo posible, en locales distintos de los destinados a las personas condenadas o a las personas detenidas que esperen ser juzgadas.

Durante todo período de prisión en cumplimiento de una sentencia impuesta por un tribunal, el tratamiento del trabajador migratorio o familiar cuyo tendrá por finalidad esencial su reforma y readaptación social.

Los menores delincuentes estarán separados de los adultos y serán sometidos a un tratamiento adecuado a su edad y condición jurídica.

prozedurak hasteko, auzitegi horrek atzerapenik gabe erabaki dezan atxilotetaren legezkotasunaren gainean eta horiek aske uztea agin dezan, atxiloteta legezkoa ez bada.

Errekurtso hori egikaritzean, erabilitako hizkuntza ezin badute ulertu edo hitz egin, interprete baten laguntza jasoko dute, dohainekoa izango dena, hala behar izanez gero.

Legearen aurkako atxilotetaren edo espetxealdiaren biktima izan diren langile migratzaileek eta horien familiakoek kalte-ordaina galdatzeko eskubidea izango dute.

#### **17. artikulua**

Askatasunaz gabetutako langile migratzaileak edo horien familiakoak tratatuko dira gizatasunarekin eta gizakiaren duintasunari eta horren kultura-nortasunari zor zaien errespetuarekin.

Langile migratzaileak eta horien familiakoak akusatuak direnean, kondenatuengandik bananduta egongo dira, salbuespeneko inguruabarretan izan ezik, eta araubide desberdina izango dute, kondenatu gabeko pertsonentzat egokitutakoa.

Adingabeak badira, adin nagusikoengandik bananduta egongo dira, eta horien auziaren ikustaldia ahalik azkarrena egingo da.

Migrazio-arloko xedapenak urratzeagatik iraganbideko estatuan edo enplegurako estatuan atxilotuta dauden langile migratzaileei edo horien familiakoei ostatu emango zaie, ahal den neurrian, kondenatutako pertsonentzako edo epaitzeke dauden pertsona atxilotuentzako lokaletatik kanpo.

Auzitegi batek ezarritako epaia betearazteko espetxealdi osoak iraun bitartean, langile migratzailearen edo horren familiakoen tratamenduak oinarritzko helburu izango du horien berrezartzea eta gizarte-birgaikuntza.

Delitugile adingabeak adin nagusikoengandik bananduta egongo dira, eta euren adinarekin eta egoera juridikoarekin bat datorren tratamendua

Durante la detención o prisión, los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán el mismo derecho que los nacionales a recibir visitas de miembros de su familia.

Cuando un trabajador migratorio sea privado de su libertad, las autoridades competentes del Estado de que se trate prestarán atención a los problemas que se planteen a sus familiares, en particular al cónyuge y los hijos menores.

Los trabajadores migratorios y sus familiares sometidos a cualquier forma de detención o prisión prevista por las leyes vigentes del Estado de empleo o el Estado de tránsito gozarán de los mismos derechos que los nacionales de dichos Estados que se encuentren en igual situación.

Si un trabajador migratorio o un familiar suyo es detenido con objeto de verificar una infracción de las disposiciones sobre migración, no correrán por su cuenta los gastos que ocasione ese procedimiento.

#### **Artículo 18**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán iguales derechos que los nacionales del Estado de que se trate ante los tribunales y las cortes de justicia.

Tendrán derecho a ser oídos públicamente y con las debidas garantías por un tribunal competente, independiente e imparcial, establecido por la ley, en la substanciación de cualquier acusación de carácter penal formulada contra ellos o para la determinación de sus derechos u obligaciones de carácter civil.

Todo trabajador migratorio o familiar suyo acusado de un delito tendrá derecho a que se presuma su inocencia mientras no se pruebe su culpabilidad conforme a la ley.

Durante el proceso, todo trabajador migratorio o familiar suyo acusado de un delito tendrá derecho a las siguientes garantías mínimas:

izango dute.

Atxiloketak edo espetxealdiak iraun bitartean, langile migratzaileek eta horien familiakoek nazionalen eskubide bera izango dute, euren familiakoen bisitak izateko.

Langile migratzaile bat askatasunaz gabetzen denean, kasuan kasuko estatuko agintari eskudunek arreta emango diote horren familiakoek, bereziki, ezkontideak eta adingabeko seme-alabek, dituzten arazoei.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek pairatu behar dutenean enplegurako estatuan edo iraganbideko estatuan zein lege izan indarrean eta lege horiek jasotako atxiloteta edo espetxealdietarik edozein, izango dituzte estatu horietako nazionalak egoera berean daudenean dituzten eskubide berberak.

Langile migratzaile bat edo horren familiakoren bat atxilotzen bada, migrazio-arloko xedapenen arau-hauste bat egiaztatzeko, prozedura horrek sortutako kostuak ez dira izango euren kontura.

#### **18. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek kasuan kasuko estatuko nazionalen eskubide berberak izango dituzte, auzitegietan eta justizia-gorteetan.

Eskubidea izango dute, eurek esan beharrekoa behar bezalako bermeekin entzun dezan legeak ezarritako auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek, euren aurka azaldutako akusazioetarik edozein bideratzean, akusazio horiek zigor-arlokoak direnean, edo arlo zibilean dituzten eskubide eta betebeharrak zehazteko.

Langile migratzaile guztiek edo horien familiakoek eskubidea izango dute, delitu bat egiteagatik akusatuta daudenean, errugabeak direla uste izateko, legearen arabera errudun direla frogatzen ez den bitartean.

Prozesuak iraun bitartean, langile migratzaile guztiek eta horien familiakoek eskubidea edukiko dute, delitu bat egiteagatik akusatuta daudenean, gutxieneko berme hauek izateko:

a) A ser informado sin demora, en un idioma que comprenda y en forma detallada, de la naturaleza y las causas de la acusación formulada en su contra;

b) A disponer del tiempo y de los medios adecuados para la preparación de su defensa y comunicarse con un defensor de su elección;

c) A ser juzgado sin dilaciones indebidas;

d) A hallarse presente en el proceso y a defenderse personalmente o ser asistido por un defensor de su elección; a ser informado, si no tuviera defensor, del derecho que le asiste a tenerlo, y, siempre que el interés de la justicia lo exija, a que se le nombre defensor de oficio, gratuitamente si careciera de medios suficientes para pagar;

e) A interrogar o hacer interrogar a los testigos de cargo y a obtener la comparecencia de los testigos de descargo y a que éstos sean interrogados en las mismas condiciones que los testigos de cargo;

f) A ser asistido gratuitamente por un intérprete, si no comprende o no habla el idioma empleado en el tribunal;

g) A no ser obligado a declarar contra sí mismo ni a confesarse culpable.

En el procedimiento aplicable a los menores, se tendrá en cuenta su edad y la importancia de promover su readaptación social.

Todo trabajador migratorio o familiar suyo declarado culpable de un delito tendrá derecho a que el fallo condenatorio y la pena que se la haya impuesto sean examinados por un tribunal superior, conforme a lo prescrito por la ley.

Cuando una sentencia condenatoria firme contra un trabajador migratorio o un familiar suyo haya sido ulteriormente revocada o el condenado haya sido indultado por haberse producido o descubierto un hecho plenamente probatorio de la comisión de un

a) Atzerapenik gabe informazioa jasotzea, ulertzen duten hizkuntza batean eta zehatz-mehatz, euren aurka azaldutako akusazioaren izaeraren eta arrazoien inguruan;

b) Behar adina denbora eta baliabide egokiak izatea, euren defentsa prestatzeko eta eurek aukeratutako defendatzailearekin komunikatzeko;

c) Epaiketa izatea, bidegabeko atzerapenik gabe;

d) Prozesuan bertan izatea eta modu pertsonalean defendatu ahal izatea edo eurek aukeratutako defendatzaile baten laguntza izatea; informazioa jasotzea, defendatzaileak izan ezean, defendatzailea izateko eskubidearen inguruan, eta, justiziaren interesak hala eskatzen duenean beti, eurentzako ofiziozko defendatzailea izendatzea, dohainik izendatuko dena, ordaintzeko behar adinako baliabiderik izan ezean;

e) Egozbide-lekukoei galderak egitea edo behartzea lekuko horiei galdeketa egitea, eta zuribide-lekukoen agerraldia lortzea, eta lekuko horiei galderak egitea, egozbide-lekukoen baldintza berberetan;

f) Interprete baten laguntza dohainik izatea, auzitegian erabilitako hizkuntza ulertzen ez badute edo hitz egiten ez badute;

g) Nork bere buruaren aurka adierazpenik ez egitea edo nork bere burua errudun ez aitortzea.

Adingabeei aplikatu beharreko prozeduran, kontuan hartuko dira horien adina eta gizarte-birgaikuntza sustatzeak duen garrantzia.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, delitu batengatik errunduntzat jotzen direnean, kondena-epaitza eta ezarritako zigorra azter ditzan goragoko auzitegi batek, legeak ezarritakoarekin bat etorri.

Gerogarrenean, langile migratzaile baten edo horren familiako baten aurkako kondena-epai irmoa aurkaratzen denean edo kondenatua indultatu denean, akats judiziala egin dela frogatzen duen egitateren bat gertatzeagatik edo

error judicial, quien haya sufrido una pena como resultado de tal sentencia deberá ser indemnizado conforme a la ley, a menos que se demuestre que le es imputable en todo o en parte el no haberse revelado oportunamente el hecho desconocido.

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo podrá ser juzgado ni sancionado por un delito por el cual haya sido ya condenado o absuelto mediante sentencia firme de acuerdo con la ley y el procedimiento penal del Estado interesado.

### **Artículo 19**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será condenado por actos u omisiones que en el momento de cometerse no fueran delictivos según el derecho nacional o internacional; tampoco se impondrá pena más grave que la aplicable en el momento de la comisión.

Si con posterioridad a la comisión del delito la ley dispone la imposición de una pena más leve, el interesado se beneficiará de esa disposición.

Al dictar una sentencia condenatoria por un delito cometido por un trabajador migratorio o un familiar suyo, se deberán considerar los aspectos humanitarios relacionados con su condición, en particular con respeto a su derecho de residencia o de trabajo.

### **Artículo 20**

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será encarcelado por el solo hecho de no cumplir una obligación contractual.

Ningún trabajador migratorio o familiar suyo será privado de su autorización de residencia o permiso de trabajo ni expulsado por el solo hecho de no cumplir una obligación emanada de un contrato de trabajo, a menos que el cumplimiento de esa obligación constituya condición necesaria para dicha autorización o permiso.

### **Artículo 21**

Ninguna persona que no sea un funcionario

egiaztatzeagatik, epai horren ondorioz zigorra jasan duenak kalte-ordaina jaso beharko du, legearekin bat etorriz, salbu eta egiaztatzen denean berari egotz dakiokela, oso-osoa edo zati batean, garaiz azaldu ez izana egitate ezezaguna.

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ezin izango dira epaitu edo zehatu delitu bat egiteagatik, baldin eta delitu hori dela bide alde aurretik kondenatu edo aske utzi badira epai irmo bidez, estatu interesduneko legearekin eta zigor-prozedurarekin bat etorriz.

### **19. artikulua**

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira kondenatuko egite edo ez-egiteengatik, halakoak gauzatzeko unean ez bazen horien inguruko deliturik zuzenbide nazionalaren edo nazioarteko zuzenbidearen arabera; halaber, ez da ezarriko halakoak gauzatu zireneko garaian zein zigor aplikatu eta horren aldean astuna den zigorrik.

Delitua egin ostean legeak xedatzen badu zigor arinagoa ezarri behar dela, xedapen hori onuragarri izango da interesdunarentzat.

Kondena-epai bat ematean, langile migratzaile batek edo horren familiako batek egindako delituarengatik, kontuan hartu beharko dira horien egoerarekin zerikusia duten alde humanitarioak, bereziki, bizilekua izateko eta lan egiteko eskubidea errespetatzeari dagokionez.

### **20 artikulua**

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira espetxeratuko kontratu-betebehar bat ez gauzatzegatik.

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira gabetuko bizileku-baimenaz edo lan egiteko baimenaz, eta ez dira kanporatuko lan-kontratuak eratorritako betebeharren bat ez gauzatzegatik, salbu eta betebehar hori gauzatzea beharrezko baldintza denean baimen horiek izateko.

### **21. artikulua**

Legeak behar bezala baimendutako

público debidamente autorizado por la ley podrá confiscar, destruir o intentar destruir documentos de identidad, autorizaciones de entrada, estancia, residencia o permanencia en el territorio de un país ni permisos de trabajo.

En los casos en que la confiscación de esos documentos esté autorizada, no podrá efectuarse sin la previa entrega de un recibo detallado.

En ningún caso estará permitido destruir el pasaporte o documento equivalente de un trabajador migratorio o de un familiar suyo.

## Artículo 22

Los trabajadores migratorios y sus familiares no podrán ser objeto de medidas de expulsión colectiva.

Cada caso de expulsión será examinado y decidido individualmente.

Los trabajadores migratorios y sus familiares sólo podrán ser expulsados del territorio de un Estado Parte en cumplimiento de una decisión adoptada por la autoridad competente conforme a la ley.

La decisión les será comunicada en un idioma que puedan entender.

Les será comunicada por escrito si lo solicitasen y ello no fuese obligatorio por otro concepto y, salvo en circunstancias excepcionales justificadas por razones de seguridad nacional, se indicarán también los motivos de la decisión.

Se informará a los interesados de estos derechos antes de que se pronuncie la decisión o, a más tardar, en ese momento.

Salvo cuando una autoridad judicial dicte una decisión definitiva, los interesados tendrán derecho a exponer las razones que les asistan para oponerse a su expulsión, así como a someter su caso a revisión ante la autoridad competente, a menos que razones imperiosas de seguridad nacional se opongan a ello.

Hasta tanto se haga dicha revisión, tendrán derecho a solicitar que se suspenda la ejecución de la decisión de expulsión.

funtzionarioetarik kanpo inork ezin ditu nortasun-agiriak, estatu baten lurraldean sartzeko, egoteko, bizitzeko edo geratzeko baimenak edo lan egiteko baimenak konfiskatu edo hautsi, ezta halakoak hausteko ahaleginak egin ere.

Agiri horiek konfiskatzea baimenduta dagoenean, konfiskatze hori ezin izango da gauzatu alde zehaztutako jaso-agiririk eman gabe.

Inola ere ez da baimenduko langile migratzaile baten edo horren familiako baten pasaportea edo horren agiri baliokidea haustea.

## 22. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek ezin dituzte jasan kanporatze-neurri kolektiboak.

Kanporatze-kasu bakoitza banan-banan aztertu eta erabakiko da.

Langile migratzaileak eta horien familiakoak estatu alderdi batetik kanpora daitezke legearen arabera agintari eskudun baten erabakia bete behar denean bakarrik.

Erabaki hori komunikatuko zaie uler dezaketean hizkuntza batean.

Hala eskatzen badute, betiere, beste arrazoiren batengatik nahitaezkoa ez bada, idatziz komunikatuko zaie, eta, segurtasun nazionalerako arrazoiek hala justifikatzeagatik, salbuespeneko inguruabarrak daudenean izan ezik, erabakiaren zioak ere aipatuko dira.

Interesdunei eskubide horien gaineko informazioa emango zaie, erabakia eman aurretik edo, gehienez ere, erabakia emateko unean.

Agintari judizial batek behin betiko erabakia ematen duenean izan ezik, interesdunek eskubidea izango dute, kanporatzearen aurkaratze-arrazoiak azaltzeko, bai eta euren kasua agintari eskudunaren esku uzteko ere, hark azter dezan, salbu eta segurtasun nazionalerako premiazko arrazoiek horren aurka egiten dutenean.

Azterketa hori egin arte, eskubidea izango dute kanporatze-erabakiaren betearazpena eten dadila eskatzeko.

Cuando una decisión de expulsión ya ejecutada sea ulteriormente revocada, la persona interesada tendrá derecho a reclamar indemnización conforme a la ley, y no se hará valer la decisión anterior para impedir a esa persona que vuelva a ingresar en el Estado de que se trate.

En caso de expulsión, el interesado tendrá oportunidad razonable, antes o después de la partida, para arreglar lo concerniente al pago de los salarios y otras prestaciones que se le adeuden y al cumplimiento de sus obligaciones pendientes.

Sin perjuicio de la ejecución de una decisión de expulsión, el trabajador migratorio o familiar suyo que sea objeto de ella podrá solicitar autorización de ingreso en un Estado que no sea su Estado de origen.

Los gastos a que dé lugar el procedimiento de expulsión de un trabajador migratorio o un familiar suyo no correrán por su cuenta.

Podrá exigírsele que pague sus propios gastos de viaje.

La expulsión del Estado de empleo no menoscabará por sí sola ninguno de los derechos que haya adquirido de conformidad con la legislación de ese Estado un trabajador migratorio o un familiar suyo, incluido el derecho a recibir los salarios y otras prestaciones que se le adeuden.

### **Artículo 23**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a recurrir a la protección y la asistencia de las autoridades consulares o diplomáticas de su Estado de origen, o del Estado que represente los intereses de ese Estado, en todos los casos en que queden menoscabados los derechos reconocidos en la presente Convención.

En particular, en caso de expulsión, se informará sin demora de ese derecho a la persona interesada, y las autoridades del Estado que haya dispuesto la expulsión facilitarán el ejercicio de ese derecho.

### **Artículo 24**

Betearazitako kanporatze-erabaki bat gerogarrenean aurkaratzen denean, pertsona interesdunak eskubidea izango du legearen araberako kalte-ordaina erreklamatzeko, eta aurreko erabakia ez da erabiliko pertsona horri eragozteko kasuan kasuko estatuan berriro sartzea.

Kanporatzea dagoenean, interesdunak zentzuzko aukera izango du, abiatu aurretik edo geroago, zor zaizkion alokairuen eta bestelako prestazioen ordainketa konpontzeko, eta betetzeke dituen betebeharrak gauzatzeko.

Kanporatze-erabakia betearaztea gorabehera, langile migratzailea edo horren familiakoa denean kanporatutakoa, horrek eskatu ahal izango du bere jatorrizko estatuaz besteko estatu batean sartzeko baimena.

Langile migratzaile baten edo horren familiako baten kanporatze-prozedurak eratorritako gastuak ez dira horien konturakoak izango.

Galdatu ahal izango zaie euren bidaia-gastuak ordaintzea.

Enplegurako estatutik kanporatu arren, horrek berez ez du kaltetuko langile migratzaile batek edo horren familiako batek estatu horretako legeriarekin bat etorritz eskuratu dituen eskubideak, zor zaizkion alokairuak eta bestelako prestazioak jasotzeko eskubidea barne.

### **23. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, euren jatorrizko estatuko edo estatu horren interesak ordezkatzeko dituen estatuko kontsuletzeko edo diplomaziako agintarien babesa eta laguntza jasotzeko, konbentzio honek zein eskubide aitortu eta eskubideok kaltetzen diren kasu guztietan.

Bereziki, kanporatzea dagoenean, atzerapenik gabe informatuko zaio eskubide horren inguruan pertsona interesdunari, eta kanporatzea agindu duen estatuko agintariek ahalbidetuko dute eskubide hori egikaritzea.

### **24. artikulua**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho, en todas partes, al reconocimiento de su personalidad jurídica.

### **Artículo 25**

Los trabajadores migratorios gozarán de un trato que no sea menos favorable que el que reciben los nacionales del Estado de empleo en lo tocante a remuneración y de:

a) Otras condiciones de trabajo, es decir, horas extraordinarias, horario de trabajo, descanso semanal, vacaciones pagadas, seguridad, salud, fin de la relación de empleo y cualesquiera otras condiciones de trabajo que, conforme a la legislación y la práctica nacionales, estén comprendidas en este término;

b) Otras condiciones de empleo, es decir, edad mínima de empleo, restricción del trabajo a domicilio y cualesquiera otros asuntos que, conforme a la legislación y la práctica nacionales, se consideren condiciones de empleo.

No será legal menoscabar en los contratos privados de empleo el principio de igualdad de trato que se menciona en el párrafo 1 del presente artículo.

Los Estados Partes adoptarán todas las medidas adecuadas para asegurar que los trabajadores migratorios no sean privados de ninguno de los derechos derivados de este principio a causa de irregularidades en su permanencia o empleo.

En particular, los empleadores no quedarán exentos de ninguna obligación jurídica ni contractual, ni sus obligaciones se verán limitadas en forma alguna a causa de cualquiera de esas irregularidades.

### **Artículo 26**

Los Estados Partes reconocerán el derecho de los trabajadores migratorios y sus familiares a:

a) Participar en las reuniones y actividades de los sindicatos o de cualesquiera otras asociaciones establecidas conforme a la ley, con miras a proteger sus intereses económicos, sociales, culturales y de otra índole, con sujeción solamente a las normas de la organización pertinente;

Langile migratzaileek eta horien familiakoek toki guztietan eskubidea izango dute euren nortasun juridikoa aitortzeko.

### **25. artikulua**

Langile migratzaileek jasoko dute enplegurako estatuko nazionalak jasotzen duten tratua, ordainsariak eta hurrengo gaiak direla eta:

a) Bestelako lan-baldintza batzuk, hau da, aparteko orduak, lan-ordutegia, asteko atsedenaldia, ordaindutako oporrak, segurtasuna, osasuna, enplegu-harremanen amaiera eta legeria nahiz eginera nazionalekin bat etorritik halakoan artean dagoen beste edozein lan-baldintza;

b) Bestelako enplegu-baldintza batzuk, hau da, enplegurako gutxieneko adina, etxean lan egitearen inguruko murrizketa eta legeria nahiz eginera nazionalekin bat etorritik enplegu-baldintzat jotzen diren gaitaririk beste edozein.

Ez da legezkoa izango enplegurako kontratu pribatuetan kaltetzea artikulua honetako 1. paragrafoan aipatu den printzipioa, tratu-berdintasunari buruzkoa.

Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, ziurtatzeko langile migratzaileak printzipio horrek eratorritako eskubideez gabetuak ez izatea, irregulartasunak izateagatik euren egonaldian edo enpleguan.

Bereziki, enplegatzaileak ez dira aske geratuko inolako betebeharrak juridikotik eta kontratu-betebeharrak ere ez dira mugatuko irregulartasun horietaririk edozein izateagatik.

### **26. artikulua**

Estatu alderdiek langile migratzaileen eta horien familiakoek eskubidea aitortuko dute, hurrengoak gauzatzeko:

a) Sindikatuen edo legearekin bat etorritik ezarritako elkarteetaririk beste edozeinen bilera eta jardueretan parte hartzea, euren interes ekonomiko, sozial, kultural eta beste mota batekoak babesteko, kasuan kasuko antolaketa-arauen mende jardutea izanik horien muga bakarra;

b) Afiliarse libremente a cualquier sindicato o a cualquiera de las asociaciones citadas, con sujeción solamente a las normas de la organización pertinente;

c) Solicitar ayuda y asistencia de cualquier sindicato o de cualquiera de las asociaciones citadas.

El ejercicio de tales derechos sólo podrá estar sujeto a las restricciones previstas por la ley que sean necesarias en una sociedad democrática en interés de la seguridad nacional o el orden público o para proteger los derechos y libertades de los demás.

### **Artículo 27**

Los trabajadores migratorios y sus familiares gozarán en el Estado de empleo, con respecto a la seguridad social, del mismo trato que los nacionales en la medida en que cumplan los requisitos previstos en la legislación aplicable de ese Estado o en los tratados bilaterales y multilaterales aplicables.

Las autoridades competentes del Estado de origen y del Estado de empleo podrán tomar en cualquier momento las disposiciones necesarias para determinar las modalidades de aplicación de esta norma.

Cuando la legislación aplicable no permita que los trabajadores migratorios o sus familiares gocen de alguna prestación, el Estado de que se trate, sobre la base del trato otorgado a los nacionales que estuvieren en situación similar, considerará la posibilidad de reembolsarles el monto de las contribuciones que hubieren aportado en relación con esas prestaciones.

### **Artículo 28**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a recibir cualquier tipo de atención médica urgente que resulte necesaria para preservar su vida o para evitar daños irreparables a su salud en condiciones de igualdad de trato con los nacionales del Estado de que se trate.

Esa atención médica de urgencia no podrá negarse por motivos de irregularidad en lo

b) Askatasunez afiliatzea edozein sindikatutan edo aipatu elkarteetarik edozeinetan, kasuan kasuko antolaketa-arauen mende jardutea izanik horien muga bakarra;

c) Edozein sindikaturen edo aipatu elkarteetarik edozeinen babesa eta laguntza eskatzea.

Legeak ezarritako murrizketak baino ezin izango zaizkio ezarri eskubide horiek egikaritzeari, murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko.

### **27. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek enplegurako estatuan jasoko dute, Gizarte Segurantzari dagokionez, bertako nazionalen tratua bera, betiere, gauzatzen badituzte estatu horretako legeria aplikagarrian edo bitariko eta alderdi anitzeko tratatu aplikagarrietan ezarritako betekizunak.

Jatorrizko estatuko eta enplegurako estatuko agintari eskudunek edozein unetan eman ahal izango dituzte arau honen aplikazio-modalitateak zehazteko beharrezkoak diren xedapenak.

Legeria aplikagarriak ez duenean ahalbidetzen langile migratzaileek edo horien familiakoek prestazioren bat izatea, kasuan kasuko estatuak, antzeko egoeretan nazionalen emandako tratua oinarri hartuta, balioetsiko du prestazio horiei begira egin dituzten kontribuzioen zenbatekoa itzultzeko aukera.

### **28. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute presako edozein mediku-arreta jasotzeko, halakoa beharrezkoa denean horien bizitza zaintzeko edo euren osasunari begira kalte konponezinak saihesteko, kasuan kasuko estatuko nazionalen tratua berdintasuneko baldintzetan.

Presako mediku-arreta hori ezin izango da ukatu egonaldiaren edo enpleguaren

que respecta a la permanencia o al empleo.

#### **Artículo 29**

Todos los hijos de los trabajadores migratorios tendrán derecho a tener un nombre, al registro de su nacimiento y a tener una nacionalidad.

#### **Artículo 30**

Todos los hijos de los trabajadores migratorios gozarán del derecho fundamental de acceso a la educación en condiciones de igualdad de trato con los nacionales del Estado de que se trate.

El acceso de los hijos de trabajadores migratorios a las instituciones de enseñanza preescolar o las escuelas públicas no podrá denegarse ni limitarse a causa de la situación irregular en lo que respecta a la permanencia o al empleo de cualquiera de los padres, ni del carácter irregular de la permanencia del hijo en el Estado de empleo.

#### **Artículo 31**

Los Estados Partes velarán porque se respete la identidad cultural de los trabajadores migratorios y de sus familiares y no impedirán que éstos mantengan vínculos culturales con sus Estados de origen.

Los Estados Partes podrán tomar las medidas apropiadas para ayudar y alentar los esfuerzos a este respecto.

#### **Artículo 32**

Los trabajadores migratorios y sus familiares, al terminar su permanencia en el Estado de empleo, tendrán derecho a transferir sus ingresos y ahorros y, de conformidad con la legislación aplicable de los Estados de que se trate, sus efectos personales y otras pertenencias.

#### **Artículo 33**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a que el Estado de origen, el Estado de empleo o el Estado de tránsito, según corresponda, les proporcione información acerca de:

a) Sus derechos con arreglo a la presente Convención;

inguruko irregulartasun-arrazoiengatik.

#### **29. artikulua**

Langile migratzaileen seme-alaba guztiek eskubidea izango dute izena izateko, euren jaiotza erregistratzeko eta naziotasuna izateko.

#### **30. artikulua**

Langile migratzaileen seme-alaba guztiek baliatuko dute hezkuntzarako oinarritzko eskubidea, kasuan kasuko estatuko nazionalekiko tratu-berdintasunean.

Langile migratzaileen seme-alabak eskolaurreko edo eskolarako irakaskuntza-erakunde publikoetan sartzea ezin izango da ukatu edo mugatu, gurasoetarik edonoren egonaldiari edo enpleguari buruzko egoera irregularra edo seme-alabaren egonaldi irregularra dela eta, enplegurako estatuan.

#### **31. artikulua**

Estatu alderdiek zainduko dute langile migratzaileen eta horien familiakoen kultura-nortasuna errespetatzea, eta ez dute eragotziko horiek euren jatorrizko estatuekin kultura-loturak izatea.

Estatu alderdiek egoki diren neurriak hartu ahal izango dituzte, horren inguruan laguntzeko eta esfortzuak eskatzeko.

#### **32. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek, enplegurako estatuko egonaldia amaitzean, eskubidea izango dute euren sarrerak eta aurrezkiak eta, kasuan kasuko estatuetako legeria aplikagarriarekin bat etorritik, euren jabetzapeko gauzak eta beste ondasun batzuk transferitzeko.

#### **33. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, jatorrizko estatuak, enplegurako estatuak edo iraganbideko estatuak, kasuaren arabera, informazioa eman diezaieten hurrengoengatik:

a) Konbentzio honen arabera dituzten eskubideak;

b) Los requisitos establecidos para su admisión, sus derechos y obligaciones con arreglo a la ley y la práctica del Estado interesado y cualesquiera otras cuestiones que les permitan cumplir formalidades administrativas o de otra índole en dicho Estado.

Los Estados Partes adoptarán todas las medidas que consideren apropiadas para difundir la información mencionada o velar por que sea suministrada por empleadores, sindicatos u otros órganos o instituciones apropiados.

Según corresponda, cooperarán con los demás Estados interesados.

La información adecuada será suministrada a los trabajadores migratorios y sus familiares que la soliciten gratuitamente y, en la medida de lo posible, en un idioma que puedan entender.

#### **Artículo 34**

Ninguna de las disposiciones de la presente Parte de la Convención tendrá por efecto eximir a los trabajadores migratorios y a sus familiares de la obligación de cumplir las leyes y reglamentaciones de todos los Estados de tránsito y del Estado de empleo ni de la obligación de respetar la identidad cultural de los habitantes de esos Estados.

#### **Artículo 35**

Ninguna de las disposiciones de la presente Parte de la Convención se interpretará en el sentido de que implica la regularización de la situación de trabajadores migratorios o de familiares suyos no documentados o en situación irregular o el derecho a que su situación sea así regularizada, ni menoscabará las medidas encaminadas a asegurar las condiciones satisfactorias y equitativas para la migración internacional previstas en la parte VI de la presente Convención.

#### **PARTE IV.**

**Otros derechos de los trabajadores migratorios y sus familiares que estén documentados o se encuentren en situación regular**

#### **Artículo 36**

b) Onartuak izateko betekizunak, legearen arabera dituzten eskubide eta betebeharrak eta estatu interesdunaren eginera, eta estatu horretan administrazio formalitateak edo beste mota batekoak betetzea ahalbidetzen dieten inguruabarretarik beste edozein.

Estatu alderdiek egokitzat jotzen dituzten neurri guztiak hartuko dituzte, informazio hori zabaltzeko, edo zaintzeko enplegatzailleek, sindikatuek edo beste organo nahiz erakunde egoki batzuek informazio horren berri ematen dutela.

Egoki denaren arabera, gainerako estatu interesdunekin lankidetzan arituko dira.

Informazio egokiaren berri emango zaie hori dohainik eskatzen duten langile migratzaileei eta horien familiakoei, eta, ahal den neurrian, horiek uler dezaketzen hizkuntza batean.

#### **34. artikulua**

Konbentzioaren zati honetako xedapenek ez dituzte salbuetsiko langile migratzaileak eta horien familiakoak iraganbideko estatu guztietako eta enplegurako estatuko legeak eta erregelamenduak betetzetik, ezta estatu horietako biztanleen kultura-nortasuna errespetatzeko betebeharretik ere.

#### **35. artikulua**

Konbentzioaren zati honetako xedapenek ez dira interpretatuko agirigabeko edo egoera irregularrean dauden langile migratzaileak edo horien familiakoak erregulariza daitezen edo horien egoera modu horretara erregularizatzeko eskubidea sor dadin, eta xedapen horiek ez diete kalterik egingo konbentzio honetako VI. zatian jasotako neurriei, nazioarteko migrazioa baldintza bidezko eta egokietan egitea ziurta dadin.

#### **IV. ZATIA**

**Agiridunak diren edo egoera erregularrean dauden langile migratzaileen eta horien familiakoen beste eskubide batzuk**

#### **36. artikulua**

Los trabajadores migratorios y sus familiares que estén documentados o se encuentren en situación regular en el Estado de empleo gozarán de los derechos enunciados en la presente Parte de la Convención, además de los enunciados en la parte III.

#### **Artículo 37**

Antes de su partida, o a más tardar en el momento de su admisión en el Estado de empleo, los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a ser plenamente informados por el Estado de origen o por el Estado de empleo, según corresponda, de todas las condiciones aplicables a su admisión y, particularmente, de las relativas a su estancia y a las actividades remuneradas que podrán realizar, así como de los requisitos que deberán cumplir en el Estado de empleo y las autoridades a que deberán dirigirse para que se modifiquen esas condiciones.

#### **Artículo 38**

Los Estados de empleo harán todo lo posible por autorizar a los trabajadores migratorios y sus familiares a ausentarse temporalmente sin que ello afecte a la autorización que tengan de permanecer o trabajar, según sea el caso.

Al hacerlo, los Estados de empleo deberán tener presentes las necesidades y obligaciones especiales de los trabajadores migratorios y sus familiares, particularmente en sus Estados de origen.

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a ser informados plenamente de las condiciones en que estén autorizadas esas ausencias temporales.

#### **Artículo 39**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a la libertad de movimiento en el territorio del Estado de empleo y a escoger libremente en él su residencia.

Los derechos mencionados en el párrafo 1 del presente artículo no estarán sujetos a ninguna restricción, salvo las que estén establecidas por ley, sean necesarias para

Enplegurako estatuan agiridunak diren edo egoera erregularrean dauden langile migratzaileek eta horien familiakoek konbentzioaren zati honetan aipatutako eskubideak izango dituzte, III. zatian aipatutakoez gain.

#### **37. artikulua**

Abiatu aurretik, edo, gehienez ere, enplegurako estatuan onartuak izateko unean, langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, jatorrizko estatuak edo enplegurako estatuak, kasuaren arabera, informazio osoa eman diezaien, euren onarpenari aplikatzen zaizkion baldintza guztien gainean eta, bereziki, euren egonaldiari eta gauza ditzaketen jardura ordainduen gainean, bai eta enplegurako estatuan gauzatu beharko dituzten betekizunen gainean eta baldintza horiek aldarazteko aintzat hartu beharko dituzten agintarien gainean ere.

#### **38. artikulua**

Enplegurako estatuak ahal duten guztia egingo dute langile migratzaileei eta horien familiakoei aitortzeko aldi batez absente izatea, horrek eraginik izan gabe bertan egoteko edo lan egiteko duten baimenean, kasuaren arabera.

Hori aitortzean, enplegurako estatuak kontuan hartu beharko dituzte langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrian eta betebeharrak bereziak, batik bat, euren jatorrizko estatuetan.

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute oso-osoan informatuta egoteko, aldi baterako absentsia horiek baimentzeko baldintzen inguruan.

#### **39. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute enplegurako estatuan mugimendu-askatasuna izateko eta euren bizilekua askatasunez aukeratzeko.

Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako eskubideek ez dute inolako murrizketarik izango, salbu eta murrizketa horiek legeak ezartzen dituenean,

proteger la seguridad nacional, el orden público, la salud o la moral públicas o los derechos y las libertades de los demás y sean congruentes con los demás derechos reconocidos en la presente Convención.

#### **Artículo 40**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán el derecho a establecer asociaciones y sindicatos en el Estado de empleo para el fomento y la protección de sus intereses económicos, sociales, culturales y de otra índole.

No podrán imponerse restricciones al ejercicio de ese derecho, salvo las que prescriba la ley y resulten necesarias en una sociedad democrática en interés de la seguridad nacional o el orden público o para proteger los derechos y libertades de los demás.

#### **Artículo 41**

Los trabajadores migratorios y sus familiares tendrán derecho a participar en los asuntos públicos de su Estado de origen y a votar y ser elegidos en elecciones celebradas en ese Estado, de conformidad con su legislación.

Los Estados de que se trate facilitarán, según corresponda y de conformidad con su legislación, el ejercicio de esos derechos.

#### **Artículo 42**

Los Estados Partes considerarán la posibilidad de establecer procedimientos o instituciones que permitan tener en cuenta, tanto en los Estados de origen como en los Estados de empleo, las necesidades, aspiraciones u obligaciones especiales de los trabajadores migratorios y sus familiares y considerarán también, según proceda, la posibilidad de que los trabajadores migratorios y sus familiares tengan en esas instituciones sus propios representantes libremente elegidos.

Los Estados de empleo facilitarán, de conformidad con su legislación nacional, la consulta o la participación de los trabajadores migratorios y sus familiares en las decisiones relativas a la vida y la

beharrezkoak direnean segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun eta moral publikoa edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko, eta bateragarriak direnean konbentzio honetan aitortutako gainerako eskubideekin.

#### **40. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute enplegurako estatuan elkarrekin eta sindikatuak eratzeko, euren interes ekonomiko, sozial, kultural eta beste mota batekoak suspertu eta babesteko.

Legeak ezarritako murrizketak baino ezin izango zaizkio ezarri eskubide horren egikaritzari, eta murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko.

#### **41. artikulua**

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute euren jatorrizko estatuko gai publikoetan parte hartzeko eta estatu horretan egindako hauteskundeetan botoa emateko eta hautatuak izateko, bertako legeriarekin bat etorritik.

Kasuan kasuko estatuek ahalbidetuko dute, egoki denaren arabera eta bertako legeriarekin bat etorritik, eskubide horiek egikaritzea.

#### **42. artikulua**

Estatu alderdiek aintzat hartuko dute prozedurak edo erakundeak ezartzeko aukera, halakoek ahalbide dezaten kontuan hartzea, jatorrizko estatuetan nahiz enplegurako estatuetan, langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrian, asmo edo betebeharrak bereziak, eta aintzat hartuko dituzte, baita ere, bidezkoa denaren arabera, langile migratzaileek eta horien familiakoek erakunde horietan askatasunez hautatutako ordezkariak izateko aukera.

Enplegurako estatuek ahalbidetuko dute, bertako legeria nazionalarekin bat etorritik, langile migratzaileen eta horien familiakoen kontsulta edo parte-hartzea tokiko erkidegoetako bizitzari eta administrazioari

administración de las comunidades locales.

Los trabajadores migratorios podrán disfrutar de derechos políticos en el Estado de empleo si ese Estado, en el ejercicio de su soberanía, les concede tales derechos.

#### **Artículo 43**

Los trabajadores migratorios gozarán de igualdad de trato respecto de los nacionales del Estado de empleo en relación con:

- a) El acceso a instituciones y servicios de enseñanza, con sujeción a los requisitos de admisión y otras reglamentaciones de las instituciones y servicios de que se trate;
- b) El acceso a servicios de orientación profesional y colocación;
- c) El acceso a servicios e instituciones de formación profesional y readiestramiento;
- d) El acceso a la vivienda, con inclusión de los planes sociales de vivienda, y la protección contra la explotación en materia de alquileres;
- e) El acceso a los servicios sociales y de salud, siempre que se hayan satisfecho los requisitos establecidos para la participación en los planes correspondientes;
- f) El acceso a las cooperativas y empresas en régimen de autogestión, sin que ello implique un cambio de su condición de trabajadores migratorios y con sujeción a las normas y los reglamentos por que se rijan los órganos interesados;
- g) El acceso a la vida cultural y la participación en ella.

Los Estados Partes promoverán condiciones que garanticen una efectiva igualdad de trato, a fin de que los trabajadores migratorios puedan gozar de los derechos enunciados en el párrafo 1 del presente artículo, siempre que las condiciones establecidas para su estancia, con arreglo a la autorización del Estado de empleo, satisfagan los requisitos correspondientes.

Los Estados de empleo no impedirán que un empleador de trabajadores migratorios

buruzko erabakietan.

Langile migratzaileek eskubide politikoak baliatu ahal izango dituzte enplegurako estatuan, baldin eta estatu horrek, subiranotasuna egikaritzean, eskubide horiek aitortzen badizkie.

#### **43. artikulua**

Langile migratzaileek tratu-berdintasuna izango dute enplegurako estatuko nazionalekiko, hurrengoeng inguruan:

- a) Irakaskuntza-erakunde eta -zerbitzuetara sartzea, onarpen-betekizunen eta kasuan kasuko erakunde eta zerbitzuetako beste arauketa batzuen arabera;
- b) Lanbide- eta kolokazio-orientazioko zerbitzuetan sartzea;
- c) Lanbide-prestakuntzarako eta trebakuntzarako zerbitzu eta erakundeetara sartzea;
- d) Etxebizitza eskura izatea, baita etxebizitzarako gizarte-planak ere, eta alogeren esparruan esplotazioaren aurkako babesa izatea;
- e) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskura izatea, betiere, kasuan kasuko planetan parte hartzeko ezarri betekizunak gauzatu badira;
- f) Kooperatibetan eta autokudeaketa-araubideko enpresetan sartzea, horrek ez duela eragingo langile migratzailearen izaera galtzea, eta horien organoetako arauen eta erregelamenduen arabera;
- g) Kultura-bizitza eskura izatea eta horretan parte hartzea.

Estatu alderdiek sustatuko dituzte tratu-berdintasun eragingarria bermatzen duten baldintzak, langile migratzaileek artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatu eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten, betiere, langile horien egonaldirako ezarritako baldintzek, enplegurako estatuko baimenaren arabera, kasuan kasuko betekizunekin bat egiten badute.

Enplegurako estatuek ez dute eragotziko langile migratzaileen enplegatzaile batek

instale viviendas o servicios sociales o culturales para ellos.

Con sujeción a lo dispuesto en el artículo 70 de la presente Convención, el Estado de empleo podrá subordinar la instalación de esos servicios a los requisitos generalmente exigidos en ese Estado en relación con su instalación.

#### **Artículo 44**

Los Estados Partes, reconociendo que la familia es el grupo básico natural y fundamental de la sociedad y tiene derecho a protección por parte de la sociedad y del Estado, adoptarán las medidas apropiadas para asegurar la protección de la unidad de la familia del trabajador migratorio.

Los Estados Partes tomarán las medidas que estimen apropiadas y entren en la esfera de su competencia para facilitar la reunión de los trabajadores migratorios con sus cónyuges o con aquellas personas que mantengan con el trabajador migratorio una relación que, de conformidad con el derecho aplicable, produzca efectos equivalentes al matrimonio, al igual que con sus hijos solteros menores de edad que estén a su cargo.

Los Estados de empleo, por razones humanitarias, considerarán favorablemente conceder un trato igual al previsto en el párrafo 2 del presente artículo a otros familiares de los trabajadores migratorios.

#### **Artículo 45**

Los familiares de los trabajadores migratorios gozarán, en el Estado de empleo, de igualdad de trato respecto de los nacionales de ese Estado en relación con:

- a) El acceso a instituciones y servicios de enseñanza, con sujeción a los requisitos de ingreso y a otras normas de las instituciones y los servicios de que se trate;
- b) El acceso a instituciones y servicios de orientación y capacitación vocacional, a condición de que se cumplan los requisitos para la participación en ellos;

horientzako etxebizitzak edo gizarte- nahiz kultura-zerbitzuak eratzea.

Konbentzio honetako 70. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, enplegurako estatuak zerbitzu horiek eratzeko aukera ezarri ahal izango du, estatu horretan orokorrean halako zerbitzuak eratzeko ezarritako betekizunen mende.

#### **44. artikulua**

Estatu alderdiek, aitortuz, familia dela gizartearen oinarritzko talde naturala eta funtsezkoa, eta familiak eskubidea duela gizartetik eta estatutik babesa jasotzeko, neurri egokiak hartuko dituzte, langile migratzailearen familia-unitateari babesa ziurtatzeko.

Estatu alderdiek hartuko dituzte egokitatz jotzen dituzten neurriak eta euren eskumenen esparrura biltzen direnak, ahalbidetzeko langile migratzaileak biltzea euren ezkontideekin edo langile horiekin harremanak dituzten pertsonekin, aplikatu beharreko zuzenbidearekin bat etorritz harreman horiek ezkontzaren antzeko ondoreak sortzen dituztenean, bai eta adingabeko seme-alaba ezkongabeekin ere, halakoak euren ardurapean daudenean.

Enplegurako estatuak, arrazoi humanitarioengatik, mesedegarritzat hartuko dute, langile migratzailearen familiako beste batzuei ere artikulua honetako 2. paragrafoan jasotako tratua bera ematea.

#### **45. artikulua**

Langile migratzaileen familiakoek enplegurako estatuan tratua berdintasuna izango dute estatu horretako nazionalko, hurrengoengatik:

- a) Irakaskuntza-erakunde eta -zerbitzuetara sartzea, onarpen-betekizunen eta kasuan kasuko erakunde eta zerbitzuetako beste arauketa batzuen arabera;
- b) Orientaziorako eta bokazio-trebakuntzarako erakunde eta zerbitzuetan sartzea, betiere, horietan parte hartzeko betekizunak gauzatzen badira;

c) El acceso a servicios sociales y de salud, a condición de que se cumplan los requisitos para la participación en los planes correspondientes;

d) El acceso a la vida cultural y la participación en ella.

Los Estados de empleo, en colaboración con los Estados de origen cuando proceda, aplicarán una política encaminada a facilitar la integración de los hijos de los trabajadores migratorios en el sistema escolar local, particularmente en lo tocante a la enseñanza del idioma local.

Los Estados de empleo procurarán facilitar a los hijos de los trabajadores migratorios la enseñanza de su lengua y cultura maternas y, cuando proceda, los Estados de origen colaborarán a esos efectos.

Los Estados de empleo podrán establecer planes especiales de enseñanza en la lengua materna de los hijos de los trabajadores migratorios, en colaboración con los Estados de origen si ello fuese necesario.

#### **Artículo 46**

Los trabajadores migratorios y sus familiares estarán exentos, con sujeción a la legislación aplicable de los Estados de que se trate y a los acuerdos internacionales pertinentes y las obligaciones de dichos Estados dimanantes de su participación en uniones aduaneras, del pago de derechos e impuestos en concepto de importación y exportación por sus efectos personales y enseres domésticos, así como por el equipo necesario para el desempeño de la actividad remunerada para la que hubieran sido admitidos en el Estado de empleo:

- a) En el momento de salir del Estado de origen o del Estado de residencia habitual;
- b) En el momento de su admisión inicial en el Estado de empleo;
- c) En el momento de su salida definitiva del Estado de empleo;
- d) En el momento de su regreso definitivo al Estado de origen o al Estado de residencia habitual.

c) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskura izatea, betiere, kasuan kasuko planetan parte hartzeko ezarri betekizunak gauzatu badira;

d) Kultura-bizitza eskura izatea eta horretan parte hartzea.

Enplegurako estatuek, jatorrizko estatuekin elkarlanean arituz, hori bidezkoa denean, langile migratzaileen seme-alabak tokiko eskola-sistemara biltzea ahalbidetzeko politika gauzatuko dute, bereziki, tokiko hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez.

Enplegurako estatuek ahalbidetuko dute langile migratzaileen seme-alabei eskaintzea euren ama-hizkuntza eta -kulturako irakaskuntza eta, bidezkoa denean, jatorrizko estatuak elkarlanean arituko dira.

Enplegurako estatuek irakaskuntza-plan bereziak ezarri ahal izango dituzte, langile migratzaileen seme-alaben ama-hizkuntzan, jatorrizko estatuekin elkarlanean arituz, hori beharrezkoa izanez gero.

#### **46. artikulua**

Langile migratzaileak eta horien familiakoak salbuetsiko dira, kontuan hartuz kasuan kasuko estatuetan aplikagarri den legeria eta kasuan kasuko nazioarteko akordioak, eta estatu horiek aduana-batasunetan parte hartzearen ondorioz dituzten betebeharrak, eskubideak eta zergak ordaintzetik, inportatu edo esportatzeagatik euren jabetzako gauzak eta etxeko tresnak, bai eta enplegurako estatuan ordaindutako jarduera gauzatzeko onartuak izan ondoren jarduera hori gauzatzeko behar den ekipamendua ere:

- a) Jatorrizko estatutik edo ohiko bizilekua dagoen estatutik irteteko unean;
- b) Enplegurako estatuan hasierako onarpena lortzeko unean;
- c) Enplegurako estatutik behin betiko irteteko unean;
- d) Jatorrizko estatura edo ohiko bizilekua dagoen estatura behin betiko itzultzeko unean.

#### **Artículo 47**

Los trabajadores migratorios tendrán derecho a transferir sus ingresos y ahorros, en particular los fondos necesarios para el sustento de sus familiares, del Estado de empleo a su Estado de origen o a cualquier otro Estado.

Esas transferencias se harán con arreglo a los procedimientos establecidos en la legislación aplicable del Estado interesado y de conformidad con los acuerdos internacionales aplicables.

Los Estados interesados adoptarán las medidas apropiadas para facilitar dichas transferencias.

#### **Artículo 48**

Sin perjuicio de los acuerdos aplicables sobre doble tributación, los trabajadores migratorios y sus familiares, en lo que respecta a los ingresos en el Estado de empleo:

a) No deberán pagar impuestos, derechos ni gravámenes de ningún tipo que sean más elevados o gravosos que los que deban pagar los nacionales en circunstancias análogas;

b) Tendrán derecho a deducciones o exenciones de impuestos de todo tipo y a las desgravaciones tributarias aplicables a los nacionales en circunstancias análogas, incluidas las desgravaciones tributarias por familiares a su cargo.

Los Estados Partes procurarán adoptar las medidas apropiadas para evitar que los ingresos y ahorros de los trabajadores migratorios y sus familiares sean objeto de doble tributación.

#### **Artículo 49**

En los casos en que la legislación nacional exija autorizaciones separadas de residencia y de empleo, los Estados de empleo otorgarán a los trabajadores migratorios una autorización de residencia por lo menos por el mismo período de duración de su permiso para desempeñar una actividad remunerada.

En los Estados de empleo en que los trabajadores migratorios tengan la libertad

#### **47. artikulua**

Langile migratzaileek eskubidea izango dute, sarrerak eta aurrezkiak, bereziki, euren familiako kideak mantentzeko beharrezkoak diren funtsak, transferitzeko enplegurako estatutik euren jatorrizko estatura edo beste edozein estatura.

Transferentzia horiek egingo dira estatu interesduneko legeria aplikagarrian ezarritako prozeduren arabera eta nazioarteko akordio aplikagarriekin bat etorritik.

Estatu interesdunek transferentzia horiek ahalbidetzeko neurri egokiak hartuko dituzte.

#### **48. artikulua**

Tributazio bikoitzari buruzko akordioak gorabehera, langile migratzaileek eta horien familiakoek, enplegurako estatuan izandako sarrerei dagokienez:

a) Ez dituzte ordainduko antzeko inguruabarretan nazionalek ordaindu behar dituzten zerga, eskubide eta kargak baino handiagoak edo astunagoak;

Los Estados Partes presentarán al Secretario General de las Naciones Unidas, para su examen por el Comité, un informe sobre las medidas legislativas, judiciales, administrativas y de otra índole que hayan adoptado para dar efecto a las disposiciones de la presente Convención:

- a) En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la Convención para el Estado Parte de que se trate;
- b) En lo sucesivo, cada cinco años y cada vez que el Comité lo solicite.

En los informes presentados con arreglo al presente artículo se indicarán también los factores y las dificultades, según el caso, que afecten a la aplicación de la Convención y se proporcionará información acerca de las características de las corrientes de migración que se produzcan en el Estado Parte de que se trate.

El Comité establecerá las demás directrices que corresponda aplicar respecto del contenido de los informes.

Los Estados Partes darán una amplia difusión pública a sus informes en sus propios países.

### **Artículo 74**

El Comité examinará los informes que presente cada Estado Parte y transmitirá las observaciones que considere apropiadas al Estado Parte interesado.

Ese Estado Parte podrá presentar al Comité sus comentarios sobre cualquier observación hecha por el Comité con arreglo al presente artículo.

Al examinar esos informes, el Comité podrá solicitar a los Estados Partes que presenten información complementaria.

El Secretario General de las Naciones Unidas, con la debida antelación a la apertura de cada período ordinario de sesiones del Comité, transmitirá al Director

ukiezintasunak eskuratzeko, halakoak izango direla Nazio Batuetako Onurabideen eta Ukiezintasunen Konbentzioko kasuan kasuko ataletan ezarritakoak.

### **73. artikulua**

Estatu alderdiek Nazio Batuetako idazkari nagusiari txostena aurkeztuko diote, Komiteak azter dezan; txosten hori izango da konbentzio honetako xedapenak eragingarri egiteko hartu dituzten legegintza-, epaiketa- eta administrazio-neurriei edo bestelako neurriei buruzkoa. Bada, txosten hori aurkeztuko dute:

- a) Kasuan kasuko estatuarentzako konbentzioa indarrean jarri eta urtebetera;
- b) Osterantzekoan, bost urterik behin, eta Komiteak hala eskatzen duen bakoitzean.

Artikulu honekin bat etorri aurkeztutako txostenetan aipatuko dira, halaber, konbentzio hau ez aplikatzeko orduan eragina duten inguruabar eta zailtasunak, kasuaren arabera, eta informazioa emango da kasuan kasuko estatu alderdian gauzatzen diren migrazio-fluxuen ezaugarriei buruz.

Komiteak ezarriko ditu txostenen edukari begira aplikatu beharreko gainerako jarraibideak.

Estatu alderdiek euren herrialdeetan zabal hedatuko dituzte txostenak jendaurrean.

### **74. artikulua**

Komiteak aztertuko ditu estatu alderdi bakoitzak aurkeztutako txostenak, eta egokitzat jotzen dituen oharrik bidaliko dizkio estatu alderdi interesdunari.

Estatu alderdi horrek Komiteari iruzkinak aurkeztu ahal izango dizkio, Komiteak artikulu honen arabera egindako edozein oharren gainean.

Txosten horiek aztertzean, Komiteak estatu alderdiei eskatu ahal izango die informazio osagarria aurkeztea.

Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Komitearen bilkura-aldi arrunt bakoitza hasi baino lehenago, behar besteko aurrerapenarekin, Lanaren Nazioarteko

General de la Oficina Internacional del Trabajo copias de los informes presentados por los Estados Partes interesados y la información pertinente para el examen de esos informes, a fin de que la Oficina pueda proporcionar al Comité los conocimientos especializados de que disponga respecto de las cuestiones tratadas en la presente Convención que caigan dentro del ámbito de competencia de la Organización Internacional del Trabajo.

El Comité examinará en sus deliberaciones los comentarios y materiales que la Oficina pueda proporcionarle.

El Secretario General de las Naciones Unidas podrá también, tras celebrar consultas con el Comité, transmitir a otros organismos especializados, así como a las organizaciones intergubernamentales, copias de las partes de esos informes que sean de su competencia.

El Comité podrá invitar a los organismos especializados y órganos de las Naciones Unidas, así como a las organizaciones intergubernamentales y demás órganos interesados, a que presenten, para su examen por el Comité, información escrita respecto de las cuestiones tratadas en la presente Convención que caigan dentro del ámbito de sus actividades.

El Comité invitará a la Oficina Internacional del Trabajo a nombrar representantes para que participen, con carácter consultivo, en sus sesiones.

El Comité podrá invitar a representantes de otros organismos especializados y órganos de las Naciones Unidas, así como de organizaciones intergubernamentales, a estar presentes y ser escuchados en las sesiones cuando se examinen cuestiones que caigan dentro del ámbito de su competencia.

El Comité presentará un informe anual a la Asamblea General de las Naciones Unidas sobre la aplicación de la presente Convención, en el que expondrá sus propias opiniones y recomendaciones, basadas, en particular, en el examen de los informes de los Estados Partes y en las observaciones que éstos presenten.

Bulegoko zuzendari nagusiari bidaliko dizkio estatu alderdi interesdunek aurkeztutako txostenen kopiak eta txosten horiek aztertzeko egoki den informazioa, Bulegoak Komiteari eman ahal izateko konbentzio honetako gaien inguruan dituen jakitate espezializatuak, betiere, gai horiek biltzen badira Lanaren Nazioarteko Erakundearen eskumen-esparrura.

Komiteak bere eztabaidetan aztertuko ditu Bulegoak ahalbidetu ahal dizkion iruzkin eta materialak.

Nazio Batuetako idazkari nagusiak, halaber, Komitea kontsultatu ondoren, beste erakunde espezializatu batzuei, bai eta gobernuen arteko erakundeei ere, bidali ahal izango dizkie txosten horien zatien kopiak, halakoak bere eskumenekoak direnean.

Komiteak gonbita egin ahal izango die Nazio Batuetako erakunde espezializatu eta erakundeei, bai eta gobernuen arteko erakundeei eta gainerako organo interesdunei ere, idatzizko informazioa aurkezteko, konbentzio honetako gaien inguruan, halakoak euren jarduera-esparrura biltzen direnean, informazio hori Komiteak azter dezan.

Komiteak Lanaren Nazioarteko Bulegoari ordezkariak izendatzeko gonbita egingo dio, horiek bere bilkuretan parte har dezaten, kontsulta-izaerarekin.

Komiteak gonbita egin ahal izango die Nazio Batuetako beste erakunde espezializatu eta organo batzuetako ordezkariari, bai eta gobernuen arteko erakundeetako ordezkariari ere, bilkuretan izan daitezen eta euren esan beharrekoa entzun dadin, euren eskumen-esparruko gaiak aztertzen direnean.

Komiteak urteko txostena aurkeztuko dio Nazio Batuetako Biltzar Orokorrari konbentzio honen aplikazioari buruz; txosten horretan azalduko dira Komitearen iritzi eta gomendioak, oinarri harturik, bereziki, estatu alderdiek egindako txostenen azterketa eta estatu alderdi horiek aurkeztutako oharrak.

El Secretario General de las Naciones Unidas transmitirá los informes anuales del Comité a los Estados Partes en la presente Convención, al Consejo Económico y Social, a la Comisión de Derechos Humanos de las Naciones Unidas, al Director General de la Oficina Internacional del Trabajo y a otras organizaciones pertinentes.

#### **Artículo 75**

El Comité aprobará su propio reglamento.

El Comité elegirá su Mesa por un período de dos años.

El Comité se reunirá ordinariamente todos los años.

Las reuniones del Comité se celebrarán ordinariamente en la Sede de las Naciones Unidas.

#### **Artículo 76**

Todo Estado Parte en la presente Convención podrá declarar en cualquier momento, con arreglo a este artículo, que reconoce la competencia del Comité para recibir y examinar las comunicaciones en las que un Estado Parte alegue que otro Estado Parte no cumple sus obligaciones dimanadas de la presente Convención.

Las comunicaciones presentadas conforme a este artículo sólo se podrán recibir y examinar si las presenta un Estado Parte que haya hecho una declaración por la cual reconoce con respecto a sí mismo la competencia del Comité.

El Comité no recibirá ninguna comunicación que se refiera a un Estado Parte que no haya hecho esa declaración.

Las comunicaciones que se reciban conforme a este artículo quedarán sujetas al siguiente procedimiento:

a) Si un Estado Parte en la presente Convención considera que otro Estado Parte no está cumpliendo sus obligaciones dimanadas de la presente Convención, podrá, mediante comunicación por escrito, señalar el asunto a la atención de ese Estado Parte.

El Estado Parte podrá también informar al

Nazio Batuetako idazkari nagusiak Komitearen urteko txostenak bidaliko dizkie konbentzio honetako estatu alderdiei, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari, Nazio Batuetako Gisa Eskubideen Batzordeari, Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendari nagusiari eta beste erakunde egoki batzuei.

#### **75. artikulua**

Komiteak onetsiko du bere araudia.

Komiteak hautatuko du bere mahaia, bi urterako.

Komitea, orokorrean, urtero bilduko da.

Komitearen bilerak, orokorrean, Nazio Batuetako egoitzan egingo dira.

#### **76. artikulua**

Artikulu honen arabera, konbentzio honetako estatu alderdi orok edozein unetan adierazi ahal izango du Komitearen eskumena onartzen duela, estatu alderdi baten komunikazioak jaso eta aztertzeko, estatu horrek komunikazio horien bidez alegatzen duenean beste estatu alderdi batek konbentzioak ezarritako betebeharrak ez dituela betetzen.

Artikulu honekin bat etorritako komunikazioak soil-soilik jaso eta aztertu ahal izango dira estatu alderdi batek aurkeztzen baditu, eta estatu alderdi horrek adierazi badu Komitearen eskumena aitortzen duela berari begira.

Komiteak ez du inolako komunikaziorik jasoko, komunikazio hori denean adierazpen hori egin ez duen estatu alderdi bati buruzkoa.

Artikulu honekin bat etorritako jasotzen diren komunikazioek hurrengo prozedura bete beharko dute:

a) Konbentzio honetako estatu alderdi batek uste badu beste estatu alderdi batek ez dituela betetzen konbentzio honek eratorritako betebeharrak, gai hori estatu horren esku utzi ahal izango du, idatzizko komunikazioaren bidez.

Estatu alderdiak Komitea ere informatu

### Comité del asunto.

En un plazo de tres meses contado desde la recepción de la comunicación, el Estado receptor ofrecerá al Estado que envió la comunicación una explicación u otra exposición por escrito en la que aclare el asunto y que, en la medida de lo posible y pertinente, haga referencia a los procedimientos y recursos internos hechos valer, pendientes o existentes sobre la materia;

b) Si el asunto no se resuelve a satisfacción de ambos Estados Partes interesados dentro de seis meses de recibida la comunicación inicial por el Estado receptor, cualquiera de ellos podrá referir el asunto al Comité, mediante notificación cursada al Comité y al otro Estado;

c) El Comité examinará el asunto que se le haya referido sólo después de haberse cerciorado de que se han hecho valer y se han agotado todos los recursos internos sobre la materia, de conformidad con los principios de derecho internacional generalmente reconocidos.

No se aplicará esta norma cuando, a juicio del Comité, la tramitación de esos recursos se prolongue injustificadamente;

d) Con sujeción a lo dispuesto en el inciso c) del presente párrafo, el Comité pondrá sus buenos oficios a disposición de los Estados Partes interesados con miras a llegar a una solución amigable de la cuestión sobre la base del respeto a las obligaciones establecidas en la presente Convención;

e) El Comité celebrará sesiones privadas cuando examine comunicaciones con arreglo al presente artículo;

f) En todo asunto que se le refiera de conformidad con el inciso b) del presente párrafo, el Comité podrá pedir a los Estados Partes interesados, que se mencionan en el inciso b), que faciliten cualquier otra información pertinente;

g) Ambos Estados Partes interesados, conforme a lo mencionado en el inciso b) del presente párrafo, tendrán derecho a

ahal izango du gai horren inguruan.

Hiru hilabeteko epean, komunikazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita, estatu jasotzaileak komunikazioa bidali zion estatuari azalpena emango dio, edo idatzizko beste agerpenen bat, arazoa argituz, eta, ahal den eta egoki den neurrian, aipatuz gai horren inguruan baliatu diren, ebazteke dauden edo existitzen diren barne prozedurak eta errekursoak;

b) Estatu jasotzaileak lehenengo komunikazioa jasotzen duen unetik zenbatzen hasita, sei hilabeteko epean, arazoa ez bada konpontzen bi estatu alderdi interesdunak asez, euretariko edonork utzi ahal izango du arazoa Komitearen esku, Komiteari eta beste estatuari zuzendutako jakinarazpenaren bidez;

c) Komiteak bere esku utzi den arazoa aztertuko du, egiaztatu ondoren gai horren inguruko barne errekurso guztiak baliatu eta agortu direla, nazioarteko zuzenbidean orokorrean aitortu diren printzipioekin bat etorritz.

Arau hori ez da aplikatuko, Komitearen ustez errekurso horien izapideak justifikaziorik gabe luzatzen direnean;

d) Paragrafo honetako c) idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuz, Komiteak bere jardunbide egokiak estatu alderdi interesdunen esku utziko ditu, arazoa adiskidetasunez konpondu ahal izateko, konbentzio honetan ezarritako betebeharren errespetua oinarritzat hartuz;

e) Komiteak bilkura pribatuak egingo ditu, artikuluko honen arabera komunikazioak aztertzen dituenean;

f) Paragrafo honetako b) idatz-zatiarekin bat etorritz Komitearen esku uzten diren kasu guztietan, Komiteak b) idatz-zatiak aipatu estatu alderdi interesdunei eskatu ahal izango die beste edozein informazio egoki ematea;

g) Bi estatu alderdi interesdunek, paragrafo honetako b) idatz-zatian aipatutakoaren arabera, eskubidea izango dute

estar representados cuando el asunto sea examinado por el Comité y a hacer declaraciones oralmente o por escrito;

h) El Comité, en un plazo de doce meses a partir de la fecha de recepción de la notificación con arreglo al inciso b) del presente párrafo, presentará un informe, como se indica a continuación:

i) Si se llega a una solución con arreglo a lo dispuesto en el inciso d) del presente párrafo, el Comité limitará su informe a una breve exposición de los hechos y de la solución a la que se haya llegado;

ii) Si no se llega a una solución con arreglo a lo dispuesto en el inciso d), el Comité indicará en su informe los hechos pertinentes relativos al asunto entre los Estados Partes interesados.

Se anexarán al informe las declaraciones por escrito y una relación de las declaraciones orales hechas por los Estados Partes interesados.

El Comité podrá también transmitir únicamente a los Estados Partes interesados cualesquiera observaciones que considere pertinentes al asunto entre ambos.

En todos los casos el informe se transmitirá a los Estados Partes interesados.

Las disposiciones del presente artículo entrarán en vigor cuando diez Estados Partes en la presente Convención hayan hecho una declaración con arreglo al párrafo 1 del presente artículo.

Los Estados Partes depositarán dichas declaraciones en poder del Secretario General de las Naciones Unidas, quien remitirá copia de ellas a los demás Estados Partes.

Toda declaración podrá retirarse en cualquier momento mediante notificación dirigida al Secretario General.

Dicho retiro no será obstáculo para que se examine cualquier asunto que sea objeto de una comunicación ya transmitida en virtud del presente artículo; después de que el Secretario General haya recibido la notificación de retiro de la declaración, no se recibirán nuevas comunicaciones de ningún Estado Parte con arreglo al

ordezkaturik egoteko, Komiteak arazoa aztertzen duenean, eta adierazpenak egiteko ahoz nahiz idatziz;

h) Komiteak, paragrafo honetako b) idatz-zatiaren arabera jakinarazpena jaso eta hamabi hilabeteko epean, txosten bat aurkeztuko du, ondoren azaldutakoarekin bat etorritik:

i) Paragrafo honetako d) idatz-zatian xedatutakoaren arabera konponbidea lortu bada, Komitearen txostena mugatuko da labor azaltzera egitateak eta lortutako konponbidea;

ii) Aurreko d) idatz-zatian xedatutakoaren arabera konponbidea lortu ez bada, Komiteak txostenean azalduko ditu estatu alderdi interesdunen arteko arazoari buruzko egitate garrantzitsuak.

Txostenari erantsiko zaizkio estatu alderdi interesdunek idatziz egindako adierazpenak eta ahoz egindako adierazpenen zerrenda.

Halaber, Komiteak estatu alderdi interesdunei bakarrik bidali ahal izango die edozein ohar, bi-bien arteko arazoarentzat egokitzen jotzen badu hori.

Edozein kasutan, txostena estatu alderdi interesdunei bidaliko zaie.

Artikulu honetako xedapenak indarrean jarriko dira konbentzio honetako hamar estatu alderdik artikulu honetako 1. paragrafoaren arabera adierazpena egiten dutenean.

Estatu alderdiek adierazpen horiek gordailutuko dituzte Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita; idazkari horrek adierazpen horien kopia bidaliko die gainerako estatu alderdiei.

Adierazpen oro edozein unetan kendu ahal izango da, idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez.

Adierazpen horiek kentzea ez da oztopo izango, artikulu honen ondorioz zein komunikazio eman eta komunikazio horretako edozein gai azter dadin; artikulu honen ondorioz ez da jasoko estatu alderdien komunikazio berririk, idazkari nagusiak adierazpena kentzeko jakinarazpena jaso eta gero, estatu alderdi

presente artículo, a menos que el Estado Parte interesado haya hecho una nueva declaración.

### **Artículo 77**

Todo Estado Parte en la presente Convención podrá declarar en cualquier momento, con arreglo al presente artículo, que reconoce la competencia del Comité para recibir y examinar las comunicaciones enviadas por personas sometidas a su jurisdicción, o en su nombre, que aleguen que ese Estado Parte ha violado los derechos individuales que les reconoce la presente Convención.

El Comité no admitirá comunicación alguna relativa a un Estado Parte que no haya hecho esa declaración.

El Comité considerará inadmisibles toda comunicación recibida de conformidad con el presente artículo que sea anónima o que, a su juicio, constituya un abuso del derecho a presentar dichas comunicaciones o sea incompatible con las disposiciones de la presente Convención.

El Comité no examinará comunicación alguna presentada por una persona de conformidad con el presente artículo a menos que se haya cerciorado de que:

a) La misma cuestión no ha sido, ni está siendo, examinada en otro procedimiento de investigación o solución internacional;

b) La persona ha agotado todos los recursos que existan en la jurisdicción interna; no se aplicará esta norma cuando, a juicio del Comité, la tramitación de los recursos se prolongue injustificadamente o no ofrezca posibilidades de dar un amparo eficaz a esa persona.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo 2 del presente artículo, el Comité señalará las comunicaciones que se le presenten de conformidad con el presente artículo a la atención del Estado Parte en la presente Convención que haya hecho una declaración conforme al párrafo 1 y respecto del cual se alegue que ha violado una disposición de la Convención.

interesdunak adierazpen berria egin duenean izan ezik.

### **77. artikulua**

Konbentzio honetako estatu alderdi orok edozein unetan adierazi ahal izango du, artikulua honekin bat etorri, Komitearen eskumena aitortzen duela, bere jurisdikzioko pertsonen bidalitako komunikazioak, edo pertsona horien izenean bidalitakoak, jaso eta aztertuko, pertsona horiek alegatzen dutenean estatu alderdi horrek urratu dituela konbentzio honek aitortzen dizkien banakako eskubideak.

Komiteak ez du inolako komunikaziorik jasoko, komunikazio hori adierazpen hori egin ez duen estatu alderdi bati buruzkoa denean.

Komiteak onartu ezinezkotzat joko du artikulua honekin bat etorri jasotzen duen komunikazio anonimo oro, edo, bere ustez, aurkeztuz gero, eskubideaz abusatzea ekarriko lukeen komunikazio oro, edo konbentzio honen xedapenekin bateraezina den komunikazio oro.

Komiteak ez du aztertuko pertsona batek artikulua honekin bat etorri aurkeztutako komunikaziorik, harik eta egiaztatu arte:

a) Arazo bera ez dela aztertu edo ez dela aribideko azterketa baten xede, nazioarteko beste ikerketa-prozedura edo konponbide baten arabera;

b) Pertsonak barne jurisdikzioan balia daitezkeen errekurtsu guztiak agortu dituela; arau hori ez da aplikatuko, Komitearen ustez, errekurtsuen izapideak justifikaziorik gabe luzatzen direnean edo ziurra ez denean pertsona horri babes eragingarria emango zaionik.

Artikulu honetako 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Komiteak artikulua honekin bat etorri jasotzen dituen komunikazioak utziko ditu konbentzio honetako zein estatu alderdiren aurka alegatu konbentzioaren xedapen bat urratu duela eta estatu alderdi horren esku, betiere, estatu horrek 1. paragrafoaren arabera adierazpena egin badu.

En un plazo de seis meses, El Estado receptor proporcionará al Comité una explicación u otra exposición por escrito en la aclare el asunto y exponga, en su caso, la medida correctiva que haya adoptado.

El Comité examinará las comunicaciones recibidas de conformidad con el presente artículo a la luz de toda la información presentada por la persona o en su nombre y por el Estado Parte de que se trate.

El Comité celebrará sesiones privadas cuando examine las comunicaciones presentadas conforme al presente artículo.

El Comité comunicará sus opiniones al Estado Parte de que se trate y a la persona que haya presentado la comunicación.

Las disposiciones del presente artículo entrarán en vigor cuando diez Estados Partes en la presente Convención hayan hecho las declaraciones a que se hace referencia en el párrafo 1 del presente artículo.

Los Estados Partes depositarán dichas declaraciones en poder del Secretario General de las Naciones Unidas, quien remitirá copia de ellas a los demás Estados Partes.

Toda declaración podrá retirarse en cualquier momento mediante notificación dirigida al Secretario General.

Dicho retiro no será obstáculo para que se examine cualquier asunto que sea objeto de una comunicación ya transmitida en virtud del presente artículo; después de que el Secretario General haya recibido la notificación de retiro de la declaración no se recibirán nuevas comunicaciones presentadas por una persona, o en su nombre, con arreglo al presente artículo, a menos que el Estado Parte de que se trate haya hecho una nueva declaración.

#### **Artículo 78**

Las disposiciones del artículo 76 de la presente Convención se aplicarán sin perjuicio de cualquier procedimiento para solucionar las controversias o denuncias relativas a la esfera de la presente Convención establecido en los instrumentos constitucionales de las

Sei hilabeteko epean, estatu jasotzaileak Komiteari idatziz emango dio arazoa argitzeko eta, hala denean, estatu horrek hartu duen neurri zuzenaren berri emateko azalpena edo beste agerpenen bat.

Komiteak jasotako komunikazioak aztertuko ditu artikuluko honekin bat etorritik, kasuan kasuko pertsonak, edo horren izenean jarduten duenak, eta estatu alderdi interesdunak aurkeztutako informazio guztia aintzat hartuta.

Komiteak bilkura pribatuak egingo ditu, artikuluko honekin bat datozen komunikazioak aztertzen dituenetan.

Komiteak bere iritzia komunikatuko dizkie kasuan kasuko estatu alderdiari eta komunikazioa aurkeztu duen pertsonari.

Artikulu honetako xedapenak indarrean jarriko dira konbentzio honetako hamar estatu alderdik artikuluko honetako 1. paragrafoak aipatu adierazpenak egin ondoren.

Estatu alderdiek adierazpen horiek gordailutuko dituzte Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita; idazkari horrek adierazpen horien kopia bidaliko die gainerako estatu alderdiei.

Adierazpen oro edozein unetan kendu ahal izango da, idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez.

Adierazpen horiek kentzea ez da oztopo izango, artikuluko honen ondorioz zein komunikazio eman eta komunikazio horretako edozein gai azter dadin; artikuluko honen ondorioz ez da jasoko pertsona baten komunikazio berririk edo pertsona horren izenean egindako komunikazio berririk, idazkari nagusiak adierazpena kentzeko jakinarazpena jaso eta gero, estatu alderdi interesdunak adierazpen berria egin duenean izan ezik.

#### **78. artikulua**

Konbentzio honetako 76. artikuluko xedapenak aplikatuko dira kalterik egin gabe konbentzio honen esparruko gatazkak edo salaketak konpontzeko edozein prozedurari, halakoak direnean Nazio Batuak eta erakunde espezializatuak eratzeko tresnetan edo horiek onetsitako

Naciones Unidas y los organismos especializados o en convenciones aprobadas por ellos, y no privarán a los Estados Partes de recurrir a otros procedimientos para resolver una controversia de conformidad con convenios internacionales vigentes entre ellos.

## **PARTE VIII. Disposiciones generales**

### **Artículo 79**

Nada de lo dispuesto en la presente Convención afectará al derecho de cada Estado Parte a establecer los criterios que rijan la admisión de los trabajadores migratorios y de sus familiares.

En cuanto a otras cuestiones relacionadas con su situación legal y el trato que se les dispense como trabajadores migratorios y familiares de éstos, los Estados Partes estarán sujetos a las limitaciones establecidas en la presente Convención.

### **Artículo 80**

Nada de lo dispuesto en la presente Convención deberá interpretarse de manera que menoscabe las disposiciones de la Carta de las Naciones Unidas o de las constituciones de los organismos especializados en que se definen las responsabilidades respectivas de los diversos órganos de las Naciones Unidas y de los organismos especializados en relación con los asuntos de que se ocupa la presente Convención.

### **Artículo 81**

Nada de lo dispuesto en la presente Convención afectará a ningún derecho o libertad más favorable que se conceda a los trabajadores migratorios y a sus familiares en virtud de:

- a) El derecho o la práctica de un Estado Parte; o
- b) Todo tratado bilateral o multilateral vigente para el Estado Parte interesado.

Nada de lo dispuesto en la presente Convención podrá interpretarse en el sentido de conceder derecho alguno a un Estado, grupo o individuo para emprender actividades o realizar actos que puedan menoscabar cualquiera de los derechos o

hitzarmenetan jasotakoak, eta xedapen horiek ez dute eragotziko estatu alderdiek beste prozedura batzuetara jotzea, gatazka bat konpon dadin euren artean indarrean dauden nazioarteko hitzarmenekin bat etorritz.

## **VIII. ZATIA. Xedapen orokorrak**

### **79. artikulua**

Konbentzio honetako xedapenek ez dute ukituko estatu alderdi bakoitzak duen eskubidea, langile migratzaileak eta horien familiakoak onartzeko irizpideak ezartzeari dagokionez.

Euren legezko egoerarekin eta langile migratzaile eta horien familiako izateagatik ematen zaien tratuekin zerikusia duten beste gai batzuetan, estatu alderdiek kontuan hartu beharko dituzte konbentzio honetan ezarritako mugak.

### **80. artikulua**

Konbentzio honetan xedatutakoa ezin da interpretatu kalte egiteko moduan Nazio Batuen Gutuneko xedapenei edo erakunde espezializatuen konstituzioetako xedapenei, halakoetan definitzen direnean Nazio Batuetako organo desberdinen eta erakunde espezializatuen kasuan kasuko ardurak konbentzio honetako gaiei dagokienez.

### **81. artikulua**

Konbentzio honetako xedapenek ez dituzte ukituko langile migratzaileei eta horien familiakoei hurrengoan araberatik aitortzen zaizkien eskubide edo askatasun mesedegarriagoak:

- a) Estatu alderdi baten zuzenbidea edo eginera; edo
- b) Bitariko edo alderdi anitzeko tratatuak, halakoak indarrean daudenean estatu alderdi interesdunari begira.

Konbentzio honetako xedapenak ez dira interpretatuko eskubideren bat emateko estatu, talde edo banakako bati, eskubide horren helburua denean konbentzio honetan zein eskubide edo askatasun aitortu eta horietako edozeini kalte egin

libertades reconocidos en la presente Convención.

#### **Artículo 82**

Los derechos de los trabajadores migratorios y de sus familiares previstos en la presente Convención no podrán ser objeto de renuncia.

No se permitirá ejercer ninguna forma de presión sobre los trabajadores migratorios ni sobre sus familiares para hacerlos renunciar a cualquiera de los derechos mencionados o privarse de alguno de ellos.

No se podrán revocar mediante contrato los derechos reconocidos en la presente Convención.

Los Estados Partes tomarán medidas apropiadas para asegurar que se respeten esos principios.

#### **Artículo 83**

Cada uno de los Estados Partes en la presente Convención se compromete a garantizar que:

- a) Toda persona cuyos derechos o libertades reconocidos en la presente Convención hayan sido violados pueda obtener una reparación efectiva, aun cuando tal violación haya sido cometida por personas que actuaban en ejercicio de sus funciones oficiales;
- b) La autoridad judicial, administrativa o legislativa competente, o cualquier otra autoridad competente prevista en el sistema jurídico del Estado, decida sobre la procedencia de la demanda de toda persona que interponga tal recurso, y que se amplíen las posibilidades de obtener reparación por la vía judicial;
- c) Las autoridades competentes cumplan toda decisión en que el recurso se haya estimado procedente.

#### **Artículo 84**

Cada uno de los Estados Partes se compromete a adoptar las medidas legislativas y de otra índole que sean necesarias para aplicar las disposiciones de la presente Convención.

### **PARTE IX. Disposiciones finales**

#### **Artículo 85**

diezaioketen jardueri ekitea edo egintzak gauzatzea.

#### **82. artikulua**

Ezin izango zaie ukorik egin konbentzio honetan langile migratzaileei eta horien familiakoei begira jasotako eskubideei.

Ez da onartuko langile migratzaileei edo horien familiakoei inolako presio-motarik egitea, uko egin diezaioten aipatu eskubideetarik edozeini edo halako eskubideetakoren batez gabetu daitezten.

Kontratu bidez ezin dira ezeztatu konbentzio honetan aitortutako eskubideak.

Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, printzipio horiek errespetatzen direla ziurtatzeko.

#### **83. artikulua**

Konbentzio honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du hurrengoak bermatzeko:

- a) Konbentzio honetan aitortutako eskubideak edo askatasunak urratzen direnean, halakoak urratuak dituzten pertsonen konponketa eragingarria lortu ahal izatea, nahiz eta urratze hori gauzatu eginkizun ofizialak betetzen ziharduten pertsonen;
- b) Epaiketa-, administrazio- edo legegintza-agintari eskudunak, edo estatuko sistema juridikoko beste edozein agintari eskudunek, erabakia hartzea halako konponketa nahi duen pertsona ororen demandaren bidez kotasunari buruz, eta konponketa bide judiziala baliatuta lortzeko aukerak areagotzea;
- c) Agintari eskudunek betetzea konponketa bidez kotzat jo duen erabaki oro.

#### **84. artikulua**

Estatu alderdietako bakoitzak konpromisoa hartzen du, konbentzio honetako xedapenak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, legegintzazkoak edo beste mota batekoak.

### **IX. ZATIA. Azken xedapenak**

#### **85. artikulua**

El Secretario General de las Naciones Unidas será depositario de la presente Convención.

#### **Artículo 86**

La presente Convención quedará abierta a la firma de todos los Estados.

Estará sujeta a ratificación.

La presente Convención quedará abierta a la adhesión de todos los Estados.

Los instrumentos de ratificación o de adhesión se depositarán en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

#### **Artículo 87**

La presente Convención entrará en vigor el primer día del mes siguiente a un plazo de tres meses contado a partir de la fecha en que haya sido depositado el vigésimo instrumento de ratificación o de adhesión.

Respecto de todo Estado que ratifique la Convención o se adhiera a ella después de su entrada en vigor, la Convención entrará en vigor el primer día del mes siguiente a un plazo de tres meses contado a partir de la fecha en que ese Estado haya depositado su instrumento de ratificación o adhesión.

#### **Artículo 88**

Los Estados que ratifiquen la presente Convención o se adhieran a ella no podrán excluir la aplicación de ninguna parte de ella ni tampoco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 3, podrán excluir de su aplicación a ninguna categoría determinada de trabajadores migratorios.

#### **Artículo 89**

Todo Estado Parte podrá denunciar la presente Convención, una vez transcurridos cinco años desde la fecha en que la Convención haya entrado en vigor para ese Estado, mediante comunicación por escrito dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas.

La denuncia se hará efectiva el primer día del mes siguiente a la expiración de un plazo de doce meses contado a partir de la fecha en que el Secretario General de las Naciones Unidas haya recibido la comunicación.

Nazio Batuetako idazkari nagusia izango da konbentzio honen gordailuzaina.

#### **86. artikulua**

Konbentzio hau estatu guztiek sinatu ahal izango dute.

Konbentzio hau berretsi beharko da.

Konbentzio honi estatu guztiak atxiki ahal izango zaizkio.

Berreste- edo atxikipen-agiriak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

#### **87. artikulua**

Konbentzio hau indarrean jarriko da, berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena zein datatan gordailutu, eta hurrengo hiru hilabeteak igaro ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

Konbentzioa indarrean jarri ondoren hori berresten duen edo horri atxikitzen zaion estatu orori dagokionez, konbentzioa indarrean jarriko da, estatu horrek berreste- edo atxikipen-agiria zein datatan gordailutu, eta hurrengo hiru hilabeteak igaro ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

#### **88. artikulua**

Konbentzio hau berresten duten edo horri atxikitzen zaientzako ezin dute baztertu horren edozein zatiren aplikazioa, eta ezin dute konbentzioa aplikatu gabe utzi, 3. artikuluan xedatutakoa gorabehera, langile migratzaileen kategorietarik edozeini begira.

#### **89. artikulua**

Estatu alderdi orok konbentzio hau salatu ahal izango du, estatu horri begira konbentzioa zein datatan indarrean jarri eta data horretatik bost urte igaro ondoren, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatziz zuzendutako komunikazioaren bidez.

Salaketa eragingarri egingo da, Nazio Batuetako idazkari nagusiak zein datatan jaso komunikazioa eta hurrengo hamabi hilabete epea amaitu ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

La denuncia no tendrá el efecto de liberar al Estado Parte de las obligaciones contraídas en virtud de la presente Convención respecto de ningún acto u omisión que haya ocurrido antes de la fecha en que se hizo efectiva la denuncia, ni impedirá en modo alguno que continúe el examen de cualquier asunto que se hubiere sometido a la consideración del Comité antes de la fecha en que se hizo efectiva la denuncia.

A partir de la fecha en que se haga efectiva la denuncia de un Estado Parte, el Comité no podrá iniciar el examen de ningún nuevo asunto relacionado con ese Estado.

#### **Artículo 90**

Pasados cinco años de la fecha en que la presente Convención haya entrado en vigor, cualquiera de los Estados Partes en la misma podrá formular una solicitud de enmienda de la Convención mediante comunicación escrita dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas.

El Secretario General comunicará acto seguido las enmiendas propuestas a los Estados Partes y les solicitará que le notifiquen si se pronuncian a favor de la celebración de una conferencia de Estados Partes para examinar y someter a votación las propuestas.

En el caso de que, dentro de un plazo de cuatro meses a partir de la fecha de dicha comunicación, por lo menos un tercio de los Estados Partes se pronuncie a favor de la celebración de la conferencia, el Secretario General convocará la conferencia bajo los auspicios de las Naciones Unidas.

Toda enmienda aprobada por la mayoría de los Estados Partes presentes y votantes en la conferencia se presentará a la Asamblea General de las Naciones Unidas para su aprobación.

Tales enmiendas entrarán en vigor cuando hayan sido aprobadas por la Asamblea General de las Naciones Unidas y aceptadas por una mayoría de dos tercios de los Estados Partes en la presente Convención, de conformidad con sus respectivos procedimientos

Salaketak ez du estatu alderdia askatuko horrek konbentzio honen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharratik, salaketa eragingarri egin aurretik gertatutako egite edo ez-egiteei dagokienez; halaber, salaketak ez du eragotziko salaketa eragingarri egin aurretik Komitearen esku utzitako edozein arazoren azterketak aurrera jarraitzea.

Estatu alderdi baten salaketa zein datatan egin eragingarri eta data horretatik aurrera Komiteak ez du azterketarik hasiko estatu horren inguruko arazo berriei dagokienez.

#### **90. artikulua**

Konbentzio hau indarrean jarri zenetik bost urte igaro ondoren, estatu alderdietarik edonork konbentzioa zuzentzeko eskabidea egin ahal izango du, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatziz zuzendutako komunikazioaren bidez.

Ondoren, proposatutako zuzenketak idazkari nagusiak komunikatuko dizkie estatu alderdiei, eta horiei eskatuko die jakinarazi diezaiotela estatu alderdien Konferentziarako deialdia egitea nahi duten, proposamenak aztertu eta horien inguruko botazioa egiteko.

Komunikazio hori zein datatan egin eta data horren ondorengo lau hilabeteetan estatu alderdietarik, gutxienez, herena konferentzia hori egitearen alde badago, idazkari nagusiak konferentziarako deialdia egingo du, Nazio Batuen babespean.

Konferentzian izan eta boto-emaille diren estatu alderdien gehiengoarekin zein zuzenketa onetsi eta Nazio Batuen Biltzar Orokorrari aurkeztuko zaizkio zuzenketok onespenerako.

Zuzenketa horiek indarrean jarriko dira, Nazio Batuetako Biltzar Orokorra onetsi eta konbentzio honetako estatu alderdietarik bi hereneko gehiengoak onartzen dituzenean, euren konstituzio-prozedurekin bat etorriz.

constitucionales.

Cuando tales enmiendas entren en vigor, serán obligatorias para los Estados Partes que las hayan aceptado, en tanto que los demás Estados Partes seguirán obligados por las disposiciones de la presente Convención y por toda enmienda anterior que hayan aceptado.

#### **Artículo 91**

El Secretario General de las Naciones Unidas recibirá y comunicará a todos los Estados Partes el texto de las reservas formuladas por los Estados en el momento de la firma, la ratificación o la adhesión.

No se aceptará ninguna reserva incompatible con el objeto y el propósito de la presente Convención.

Toda reserva podrá ser retirada en cualquier momento por medio de una notificación a tal fin dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas, quien informará de ello a todos los Estados.

Esta notificación surtirá efecto en la fecha de su recepción.

#### **Artículo 92**

Toda controversia que surja entre dos o más Estados Partes con respecto a la interpretación o la aplicación de la presente Convención y no se solucione mediante negociaciones se someterá a arbitraje a petición de uno de ellos.

Si en el plazo de seis meses contados a partir de la fecha de presentación de la solicitud de arbitraje las Partes no consiguen ponerse de acuerdo sobre la organización del arbitraje, cualquiera de las Partes podrá someter la controversia a la Corte Internacional de Justicia mediante una solicitud presentada de conformidad con el Estatuto de la Corte.

Todo Estado Parte, en el momento de la firma o la ratificación de la Convención o de su adhesión a ella, podrá declarar que no se considera obligado por el párrafo 1 del presente artículo.

Los demás Estados Partes no estarán obligados por ese párrafo ante ningún Estado Parte que haya formulado esa

Zuzenketa horiek, indarrean jartzen direnean, nahitaezkoak izango dira halakoak onartu dituzten estatu alderdientzako; gainerako estatu alderdiek, ordea, konbentzio honetako xedapenak eta aldez aurretik eurek onartutako zuzenketak betetzen jarraituko dute.

#### **91. artikulua**

Estatuek sinadura-, berrespen- edo atxikipen-unean egindako erreserben testua Nazio Batuetako idazkari nagusiak jasoko du, eta testu hori estatu guztiei komunikatuko die.

Ez da onartuko konbentzioaren xedearekin eta asmoarekin bateraezina den erreserbarik.

Erreserba oro edozein unetan kendu ahal izango da, Nazio Batuetako idazkari nagusiari ondore horietarako jakinarazpena eginez; idazkari nagusiak horren berri emango die estatu guztiei.

Jakinarazpen horrek ondoreak sortuko ditu berori jasotzeko datan.

#### **92. artikulua**

Konbentzioaren interpretazioari edo aplikazioari dagokionez, estatu alderdi bi edo gehiagoren artean sortzen den eztabaida oro tartekaritzaren mende utziko da, euretako baten batek hala eskatuta, betiere, eztabaida negoziazio bidez konpondu ez bada.

Tartekaritza-eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epean alderdiak ez badira ados jartzen tartekaritzaren antolaketari buruz, alderdietarik edonork utzi ahal izango du eztabaida Nazioarteko Justizia Gortearen esku, Gortearen estatutuarekin bat datorren eskabidea aurkeztuta.

Estatu alderdi orok, konbentzio hau sinatu nahiz berresteko unean edo horri atxikitzeke unean, adierazi ahal izango du artikulua honetako 1. paragrafoak ez duela berau behartzen.

Paragrafo horrek gainerako estatu alderdiak ez ditu behartuko erreserba hori egin duten estatuei begira.

declaración.

Todo Estado Parte que haya formulado la declaración prevista en el párrafo 2 del presente artículo podrá retirarla en cualquier momento mediante notificación dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas.

### **Artículo 93**

La presente Convención, cuyos textos en árabe, chino, español, francés, inglés y ruso son igualmente auténticos, se depositará en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

El Secretario General de las Naciones Unidas enviará copias certificadas de la presente Convención a todos los Estados.

EN TESTIMONIO DE LO CUAL, los infrascritos plenipotenciarios, debidamente autorizados para ello por sus respectivos gobiernos, han firmado la presente Convención.

Artikulu honetako 2. paragrafoko erreserba egin duen estatu alderdi orok edozein unetan kendu ahal izango du hori, Nazio Batuetako idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez.

### **93. artikulua**

Konbentzio hau, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko da, hark gordailutu dezan; berebat, konbentzioaren testuak kautoak izango dira, arabiarrez, txinatarrez, espainolez, frantsesez, ingelesez eta errusieraz.

Nazio Batuetako idazkari nagusiak konbentzio honen kopia ziurtatuak bidaliko dizkie estatu guztiei.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean sinatzen duten botereguztidunek, euren gobernuek behar bezala baimenduta daudela, konbentzio hau sinatzen dute.